



# IKASTETXEAREN URTEKO PLANA

## 2024-25 ikasturtea

DOLORES IBARRURI BHI

014010

ABANTO-ZIERBENA



## AURKIBIDEA

### Orrialdea

<u>0.- SARRERA ETA TESTUINGURUA</u>	5
<u>1.- INSTITUTUKO HELBURU OROKORRAK</u>	5
1.1.- Lehentasunezko ildoak	5
1.2.- Helburuak	8
1.3.- Ebaluazio diagnostikoa dela eta sortutako hobekuntza-jarduerak	9
1.4.- Helburuen garapenerako proposatutako jardueren plangintza	11
<u>2.- IRAKASKUNTZA JARDUEREN PROGRAMA</u>	18
2.1.- Zentroaren antolamendua	18
2.1.1.- Institutuko ikasleak eta taldeak	18
2.1.2.- Irakasleria eta tutoretzak	19
2.1.3.- Elkargoaren organoak	19
2.1.4.- Pertsona bakarreko organoak	20
2.1.5.- Irakasleen koordinazioa	20
2.1.6.- Ikasle eta irakasleen ordutegiak. Aukerakotasuna. Errefortzuak.	20
2.1.7.- Ebaluazio datak	22
2.1.8.- Hezkuntza komunitateari informazioa	22
2.1.9.- Administrazioa eta Zerbitzuak	23
2.1.10.- Beste zerbitzu batzuk eta lankidetzak	23
2.2.- Programazio didaktikoak	24
2.3.- Berriazko programak	24
2.3.1.- Irakaskuntzarako ekintzak	24
2.3.1.1.- Pedagogia Terapeutiko eta HIPI Irakasleria	24
2.3.1.2.- Hezkuntza Berriaz Sendotzeko Proiektua (HBSP)	24
2.3.1.3.- Ikasle ijitoekiko esku-hartze proiektua	25
2.3.1.4.- Enplegurako heziketa jarduera programa	25
2.3.1.5.- Lanbide Heziketa	25
2.3.2.- Berrikuntza eta Hobekuntza proiektuak	26

2.3.2.1.- HEDATZE proiektua	26
2.3.2.2.- Hizkuntza Normalkuntza	27
2.3.2.3.- Osasuna, Hezkidetzeta eta Bizikidetzeta proiektuak	28
2.3.2.4.- Eskola Agenda 30	30
2.3.2.5.- Digitalizazioa	32
2.3.2.6. IKASLAB-Etorkizuneko gela	32
2.3.2.7. STEAM Proiektua	33
2.3.2.8. Irakurketa plana	34
2.3.2.9. Eskola Kirola Proiektua	35
2.3.2.10. Berrikuntza proiektua	36
2.3.2.11. Eskola Adimentsua	38
2.4.- Zentroaren Ebaluazio Plana	40
<u>3.- ORIENTAZIO ETA TUTORETZA PLANA</u>	40
<u>4.- URTEKO BIZIKIDETZA PLANA</u>	40
<u>5.- EKINTZA OSAGARRIEN ETA ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN PROGRAMA</u>	40
5.1.- Ekintza Osagarriak	40
5.1.1.- Ekintza Didaktikoak	40
5.1.2.- Jai-Ekintzak	41
5.1.3.- Ikasketa eta Elkarbizitzarako Bidaiak	41
5.1.4.- Ebakuazio-Simulazioa	41
5.1.5.- <i>Dolores Ibarri Ezagutuz</i>	42
<u>6.- IRAKASLEENTZAKO PRESTAKUNTZA PLANA</u>	42
<u>7.- URTEKO KUDEAKETA PROGRAMA</u>	45
7.1.- Baliabideen antolakuntza	46

## 8.- ERANSKINAK

I. eranskina - DBH 1. kurtsoko irakasleria

II. eranskina - DBH 2. kurtsoko irakasleria

III. eranskina - DBH 3. kurtsoko irakasleria

IV. eranskina - DBH 4. kurtsoko irakasleria

V. eranskina - Batxilergoko irakasleria

VI. eranskina - Heziketa Zikloetako irakasleria

VII. eranskina - Elkargoaren organoak

VIII. eranskina - Pertsona bakarreko organoak

IX. eranskina - IGE, Administrazioa eta Zerbitzuak

X. eranskina - Institutuko ordutegiak

XI. eranskina - Ebaluazio-datak

XII. eranskina - Orientazio eta Tutoretza Plana

XIII. eranskina - Urteko Bizikidetza Plana.

XIV. eranskina - Ekintza osagarrien programa

XV. eranskina - Irakasleentzako Formazio-Plana

XVI. eranskina - Enplegurako heziketa jarduera programa

XVIII. eranskina- Hedatze proiektua

## **0.- SARRERA ETA TESTUINGURUA**

DOLORES IBARRURI BHI ikastetxea Abanto-Zierbenako herrian kokatuta dago, Bizkaiko mendebaldeko Meatzaldea eskualdean, hain zuzen ere. 9.366 biztanle zituen 2023ko urtarrilaren 1ean. Burdin esplotazio ugari eduki zituen garai batean, eta hirigunea Gallarta auzoan kokatuta dago. Udalerriak herrigunetik kanpoko auzo asko dauzka sakabanatuak: Campillo, Cotorrio, Sanfuentes, ...

Duela bi ikasturte [LOMLOE](#) delako lege berria indarrean jarri zen. Aldaketa metodologikoa proposatzen du legeak: ikasgaika antolatu ordez, hainbat ikasgai eta diziplina gurutzatuz gaiak proiektuak lantzea, ikuspegi globalago batetik eta kompetentzietan indarra jarritz. Institutuan proiektuak aritzeko gogoeta prozesua zabaltzeko premia ikusten dugu eta bide horretan pausoak ematen joateko asmoa dugu. Aurretik ere proiektu txikiak jorratu izan dira han-hemenka, ez da zerotik hastea, baina bai gaiari sakonago heltzea. Metodologia horren bidez zeharkako kompetentziei garrantzi handia ematen zaie, eta ikasleen autonomia eta kritikotasuna areagotzen dira. Edukiak aldiz, gutxiago lantzen dira. Hori bada kezka bat gurean, ea kapaz izango garen metodologia honekin lan eginez programatuta ditugun eduki guztiak emateko. Beste era batera esanda: eduki batzuk albo batera uztea eta curriculumak arintzea ezinbestekoa da.

LOMLOE legeari jarraiki eta [EAEko curriculum berriaren dekretuari](#) jarraiki, ikastetxeko maila guztietan Curriculum berria iaz ezarri zen. 2024-2025 ikasturte berriari begira, Curriculumak inplementatzen jarraituko dugu eta esku artean ditugun eta eraikitzen joango garen lanabesekin egingo dugu bidea. Curriculum berriak kompetentzien bidezko ikaskuntzan eta ebaluazio hezitzailean jauzi kualitatiboa ekarri du eta lan egiteko moduan zenbait aldaketa esanguratsu ekarri ditu, ikasleen ikaste-prozesu berriak eta arrakastatsua bermatze bidean. Horretarako, 2022-2023 ikasturtean hasitako bideari jarraipena emanez, Berrikuntza Arduradunak (aurrerantzean BeA figurak) lanean jarraituko dute eta ikaskuntza-sareak sortuko ditugu prozesu horietan guztietan eragiteko.

DOLORES IBARRURI BHIko [Ikastetxearen Urteko Planak \(IUP\)](#) 2024-2025 ikasturterako Institutua antolatzeko proposamena biltzen du. Hortaz, ikastetxeko jarduerak planifikatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko ezinbesteko tresna dugu hau. Bere lantzea ebaluazioko prozesu parte-hartzaitetik abiatzen da, bere onespenez klaustroko eta OOGeko kideen inplikazioa eskatzen du eta bere abiarazteak hezkuntza komunitate guztia inplikatzen du. IUPk, berez, zentroaren hezkuntza prozesuaren ardatza da: helburuek, giza eta material baliabideen antolakuntzak eta ekintza programazioak zentroa dinamizatzea ahalbidetzen du, baita irakaskuntza prozesuari egonkortasuna eta kohesioa ematea eta zer nolako Institutua nahi dugun eta nola lortu nahi dugun definitzeko erreferentzia-patroiak ere. Azken finean planifikaziorako praktikoa eta errealista den tresna bat baino ez da.

## **1.- INSTITUTUKO HELBURU OROKORRAK**

### **1.1.- LEHENTASUNEZKO ILDOAK**

2024-2025 ikasturtea planifikatzeko, lehentasunezko esparruei dagokionez, honako alderdi hauek hartu dira kontuan:

➤ Lidergo pedagogikoa eta hezkuntza eraldaketa.

Zuzendaritza taldeari dagokionez, ikastetxea modu arrakastatsuan gidatzeko ezinbestekoa da eskola-zuzendaritzari bere eginkizuna eraginkortasunez betetzeko behar duen formazioa eta laguntza izatea. Hori horrela, testuinguru honetan ikastetxe publikoetako zuzendarien eginkizunetarako sarbidea, eta zuzendarien zein zuzendaritza-taldeen prestakuntza, ebaluazioa, aintzatespena eta zuzendaritzako kargu-uzteak arautzen duen [29/2023 otsailaren 28koa Dekretu](#) berriak aipatzen duen bezala, gure zuzendaritza-taldeak ondoko formazioetan parte hartuko du:

- Zuzendarien etengabeko formakuntzarako aurreikusitako formakuntza-jarduerak. [2024-2025 BeA jarraibideen V. eranskinean](#) Zuzendaritza-taldeentzako etengabeko formakuntza (zuzendarien mintegiak, ikasketaburuen mintegiak, mentoretza, monografikoak,...) jasota daude. Prestakuntza horren helburua zuzendariak zuzendaritza-funtzioa eta lidergo pedagogikoa betetzeko beharrezkoak diren konpetentziak garatzea da.
- Ikasketa buru eta idazkarien formazioa. Ikasketa buruek eta idazkariak eskuratu eta garatu ditzatela zuzendaritza-eginkizuna eta lidergo pedagogikoa betetzeko beharrezkoak diren konpetentziak. Aurreikusitako formakuntza-jarduerak [2024-2025 BeA jarraibideen V. eranskinean](#)- Zuzendaritza-taldeentzako etengabeko formakuntza (zuzendarien mintegiak, ikasketaburuen mintegiak, mentoretza, monografikoak,...) jasota daude.

Berrikuntza arduradunari dagokionez, ikasturte honetan berriz ere BeA figura hori esleitu da, ikastetxearen berrikuntza eta formazio planei modu integralean erantzuteko. Figura hori elkarlanean arituko da zuzendaritza-taldearekin eta klaustroarekin batera eta bere eginkizun nagusia da ikastetxean ikaskuntza berritzeko prozesuak eta proiektuak sustatzea, dinamizatzea eta koordinatzea, IHParekin eta horren ondoriozko dokumentu estrategikoekin bat etorritik. Eginkizun horiek garatu ahal izateko formazio programa bat diseinatu da “*BeAk trebatzeri*” izenpean.

➤ Curriculuma eta ebaluazioa.

2023-2024 ikasturtean osatu zen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ([77/2023 DEKRETUA](#)) eta Batxilergoko ([76/2023 DEKRETUA](#)) curriculum berrien inplementazioa. Ildo horretan, ikastetxeak bere hezkuntza-etapen curriculuma egokitzen, garatzen etaosatzen jarraituko du eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan (IHP) integratuko du. Horretarako, programazio didaktikoak (ikas-egoerak, proiektuak..) eguneratu, ezarri eta ebaluatuko dira, ebaluazio-irizpideak eta oinarritzako jakintzak definituko dira, ebaluazio tresnak definituko dira eta kalifikazio-irizpideak zehaztuko dira, besteak beste.

➤ Eskola inklusiboa, bizikidetzeta eta ongizatea.

Bizikidetzeta positiboa, aniztasunari erantzutea eta ongizate emozionala eskola inklusiboaren esparruan funtsezko elementuak dira gure ikasleen garapen pertsonal, sozial eta akademikorako.

2024-25 ikasturtean, honako jardun hauei emango zaie **lehentasuna**:

- **BAT taldea indartzea**, erreferentziazko egitura baita ikastetxean gertatzen diren eskola-jazarpeneko kasuak ebazteko prozesua koordinatzeko eta ekimena garatzean egiten diren esku-hartzeetarako. Hori lortzeko, bi ardatz hauetan jardungo da:

1. ardatza: BAT taldearen funtzionamendu-egiturak finkatzea.
2. ardatza: BAT taldearen lanean sakontzea, [Hezkuntzako sailburuordearen 2019ko urriaren 11ko Ebazpenean](#) zehazten diren eginkizunetatik abiatuta:
  - o BAT taldearen zereginen aurkezpena egitea hezkuntza komunitatean. Ikasle, irakasle, pertsonal ez-irakaslea eta familie; *BAT ikastetxea gara.*
  - o Etengabeko formazio-prozesuaren barruan, Bizikasi ekimenetik eskaintzen diren prestakuntza-proposamenetan parte hartzea.
  - o Jokabide suizidaren inguruan sentsibilizazioa, ezagutza eta kontzientziazioan ekiteko [Bizikasi webgunean](#) eskuragarri dauden materialen zabalkundea.
- 2024-25eko IUPeen sartzeari Bizikasi ekimena garatzearekin lotutako helburuak eta jarduerak, Bizikidetza Planean programatuak.
- Tutoretza Planean garatzea eskola-jazarpena prebenitzeko eta bizikidetza-ziber-bizikidetza positiboa eraikitzeko sortutako curriculum-materialak, DBHko 1., 2., 3 eta 4. maileri dagozkienak. Horiek Bizikasiren webgunean daude eskuragarri.

Institutuaren **ildo estrategikoak** bere Hezkuntza Proiektuan definitzen dira. Ildo guzti horiek eguneroko funtzionamenduan aurkitu ditzakegu:

- Kalitateko hezkuntza garatzea, eguneroko lanerako metodologia eta bitarteko eraginkorrak erabiliz eta, bereziki, ikaskuntza- irakaskuntza prozesuen ebaluazioan oinarritutako etengabeko hobekuntza prozesuak ezarriz.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan berrikuntza metodologikoan sakontzea, hezkuntza komunitateak hitzartutako printzipio pedagogikoak eta garatu behar diren oinarritzko gaitasun eta gaitasun orokorrak kontuan izanez, inklusibitate-printzipioa aintzat hartuz eta informazio eta komunikazio teknologien arloko berrikuntzak, bereziki, bultzatuz.
- Ikasleen partaidetza institutuan bultzatzea, parte hartzeko bideak ezarriz eta aukerak sortuz.
- Elkarrekiko errespetua, tolerantzia, lankidetzaren eta elkartasuna printzipioetan oinarritutako bizikidetzaren kudeaketan hezkuntza komunitateko kide guztiak inplikatzea, ikasleriaren giza trebetasunak garatzen saiatuz.
- Institutuan erabiltzen diren hizkuntza instrumentalen garapenari dagokionez tratamendu bateratua, errealista, funtzionala eta irekia eskaintzea. Euskararen erabilera institutuko esparru guztietan eta hezkuntza komunitateko kide guztien artean indartzea.
- Familiak euren seme-alaben hezkuntzan parte hartzea bultzatzea, elkarren arteko errespetuzko harremanetan oinarrituta, euren eskari eta beharrez erantzunez eta ikasleen etengabeko hazkundea erdietsiz.
- Hezkuntza-eskaintza inguruko ingurunearen beharretara egokitzeko bultzada, ahal den neurrian, ikasleen prestakuntza gizartearen eskaerara egokituz.

## 1.2.- HELBURUAK

Lan ildo nagusi horiek eta 2022-23 ikasturtean aurkeztutako [Zuzendaritza-Proiektuan](#) aipatzen ziren helburuak kontuan izanda, hurrengo helburuak azpimarra daitezke:

- Ikastetxeetako zuzendaritzen hezkuntza-lidergoa eta irakasle guztien ahalduntzea sustatzea.
- Curriculum berriaren ezarpenarekin jarraitzea.
- Ebaluazio hezitzailearen inguruko gogoeta egitea, irakasteko eta ikasteko prozesu esanguratsuak bultzatzeko.
- Ikastetxeko Proiektu Digitala garatzea eta zabaltzea estamentu guztietan, ikastetxearen beharrei erreparatuta eta irakasleen konpetentzia digitalean sakontzeko bidea irekiz, irakasleriaren trebakuntzaz eta arduradunen esperientziaz baliatuz, ikastetxea digitalki konpetentea izateko.
- Hezkuntza-komunitate eleaniztunak bultzatzea; curriculumen hizkuntzen kalitatean eragitea eta bereziki euskararen normalkuntzarako estrategia berriak garatzea, hala nola, eremu soziolinguistikoan arreta berezia jarritz. Aldi berean, Hizkuntza Normalkuntza Proiektua garatu eta praktikan jartzea, komunitateko partaide guztiak inplikatur, euskararen erabilera handitzeko.
- Ikasle guztien beharretara egokitutako eskola inklusiboaren estrategietan sakontzea.
- Konpetentzia emozionala lantzea eta ongizate emozionala zaintzea. Ikasleen egoera emozionala hobetzea, elkarbizitza plana berrituz eta gaur egungo egoerara egokituz, elkarbizitza positiboa eta eskola-komunitatearen ongizatea indartzeko.
- Gure ikasleengan zentratutako metodologia aktiboak eta inklusiboak diseinatzea, talde lana eta koordinazioa lehenetsiz, ikasleen maila akademikoa igotzeko.
- ICPa eguneratzea, ikastetxeko irakasleriaren hausnarketarekin eta ekarpenekin, Hezkuntza Lege berrian oinarrituz, irakasleen jarduerarako eta ikasleen ikaskuntzarako lagungarria izateko.

[2023-2024 ikasturtearen Ikastetxeko Urteko Memorian \(IUM\)](#) zehaztutako hobekuntza proposamenak kontuan izanik hurrengo helburuak proposatzen dira:

- Irakaskuntza-ikaskuntza metodologiaren hobekuntzan eta praktika onak gure ikastetxean ezartzen jarraitu behar dugu, gaur egungo eskakizunei doitzeko.
- IkasLab gelako planifikazioa burutu eta ahalik eta etekin gehiena lortu.
- HEDATZE proiektua ezarri, sendotu eta indartu, ikastetxeko alternatibari bihurtu eta ikasleen partaidetza kopuru egokian sustatzen duena.
- Datozen ikasturteetan DBHko 1-2. mailatan abian jarriko diren eremu-lanaz hausnarketa egitea, irakasleen formazioa, baliabide didaktikoen bilduma egitea eta oro har, eremukako lanaren zehaztapen erabakiak hartzea. Datorren urtean zehaztu beharko dugu eremu bakoitza zein irakasgaiek osatzen duten.
- Hiruhilabete bakoitzaren bukaeran "Proiektu astea" edo "Eremuen astea" aurrera eramateko, aldezturik eremu horietako departamentuek partekatatu edo adostu behar dute materiala, proiektua sortzen joateko.
- Berrikuntza arduradunaren (BeA) zereginak zehaztea.
- Programazio didaktikoak Curriculum berrira egokitzen jarraitu.
- IPDren inplementazioarekin jarraitu.



- Zuzendaritza proiektuaren helburuetan jarritako ildo nagusien garapena.
- Ikastetxean errotuta dauden proiektuetan arduradunak ez diren beste pertsonen inplikazioa bilatu behar dugu.
- DBHko tutoretza bikoitzen lana zehaztu. PIRE-JPPak aurrera eramateko prozedura ikasturte hasieratik azaldu gidoi garbi baten bidez, bereziki irakasle berriei.
- E-maila akademikoaren eta gure irakaslanaren inguruko hausnarketa bultzatzen jarraitzea, ikasleen errendimendu akademikoa hobetze arren.
- Ikasleen parte-hartzea zentroaren bizitzaren arlo guztietan bultzatzea.
- Irakasleentzako formazio saioen eraginkortasuna hobetzea.
- Komunikazio gaitasunean ere jorratzen jarraitu behar dugu. E-mailaren kudeaketa hobetzea. Komunikazio bideak hobetu.
- Irakurketa planarekin lotuta, liburutegia berriztuaren planifikazio egokia bultzatu behar da dauzkagun helburuak betetzeko.
- Gailu elektronikoen erabilerari buruzko arautegi berria modu hezigarrian zabaldu komunitate osoari.

### **1.3.- EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA DELA ETA SORTUTAKO HOBEKUNTZA-JARDUERAK**

Ebaluazio diagnostikoak ikastetxeentzat prestakuntzarako eta orientazio gisa balio du eta familientzat eta hezkuntza-komunitate osoarentzat informazioa eskaintzen du. Datu zorrotz eta fidagarriak oinarri hartuta, hezkuntza arloko jardunbideari eta ikastetxeko hezkuntza arloko plangintzaren inguruan erabakiak hartzeari buruzko hausnarketa bultzatu nahi du hobekuntzarako Esku-hartze Plana aplikatuta emaitzak hobetzen laguntzeko.

[2020-2021 ikasturtean, etaparen erdian \(DBH-ko 2. mailan\) egin ziren proben ebaluazioa](#) egin eta gero hauek izan ziren proposatutako **hobekuntza-ekintzak**:

1. Hobekuntza-ekintza: Ikasleek ikaskuntza-prozesuan parte-hartze aktiboagoa izan dezaten bultzatzea, metodologia berriak ezarri.
2. Hobekuntza-ekintza: Irakasgai guztietan hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna lantzen jarraitzea (ahoz zein idatziz).
3. Hobekuntza-ekintza: Testu egokiak aukeratuta, irakurmena lehenetsi.
4. Hobekuntza-ekintza: Ikasleek eta irakasleek kanpoko probak aldeztetik prestatzen dituzaten bultzatzea.

Ikastetxeak, [2022-2023 ikasturtean egindako etapa erdiko \(DBHko 2. mailan\) ebaluazio diagnostikoaren emaitzen txostenak](#) aztertu eta ondorioak jasoko ditu. Honako txosten hauek jasoko ditugu:

- a) [Ikastetxearen behin-behineko txostena](#) 2023ko ekainaren bukaeran jaso genuen.
- b) Ikastetxeko behin betiko txostena eta familientzako txosten indibidualak (2023ko azaroan).
- c) Hezkuntza-sistemaren txosten exekutiboa (2024ko otsailean).

Jasotako emaitzek ikastetxearen barne-ebaluazioei buruzko informazioa osatzeko balioko dute, hobekuntza-prozesuarekin jarraitzeko, [oinarrizko irakaskuntzen curriculumari buruzko](#)

[Dekretuaren 41. artikulua](#) arabera, eta hobetzeko aukera eta erronka gisa ulertu behar dira. Hobekuntza-prozesu horretan, 2023ko ebaluazioan lortutako emaitzez gain, kontuan hartu behar dira aurreko Ebaluazio Diagnostikoetan lortutakoak, ikastetxea hobetzeko aurreko planetan definitu eta adostutako jarduera-proposamenak eta Hezkuntza Sailak oro har ezarritako hobekuntza-helburuak. Hortaz, hobekuntzarako-ekintzak proposatuko dira departamentuetan, Hobekuntzarako Esku-Hartze Plana osazeko.

2023-2024 ikasturtearen bukaeran [Hobekuntzarako Esku-hartze Plana](#) aurkeztu eta onartu egin zen. Bertan, Hobekuntza-Jarduera hauek proposatu ziren:

1. Ikasleen irakurtzeko gaitasuna hobetzea
2. Irakasgai guztietan hizkuntza- komunikaziorako gaitasuna lantzea, batez ere, ahozko eta idatzizko adierazpena.
3. IkasLab gela erabiltzea eta ikasleek ikaskuntza prozesuan parte hartze aktiboagoa bultzatzea ere, proiektuen bitartez.

4.- HELBURUEN GARAPENERAKO PROPOSATUTAKO JARDUEREN PLANGINTZA

<p><b>1. HELBURUA</b></p>	<p><b>Gure ikasleengan zentratutako metodologia aktiboak eta inklusiboak diseinatzea, talde lana eta koordinazioa lehenetsiz, ikasleen maila akademikoa igotzeko.</b></p>				
<p><b>LEHENTASUNEZKO ILDOA</b></p>	<p>Curriculum berriaren garapena eta digitalizazioa, irakaskuntzaren planteamendu berriei eta hezkuntza- sistemaren eskakizunei aurre egiteko beharrezkoak diren estrategiak eta baliabideak eskainiko dira gelan inplementatzeko. Hortaz, berrikuntza eta curriculum-aldaketa sustatzea, irakaskuntza-hobekuntzari, irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntzari eta ikasleen ikaskuntzari lotuta.</p>				
<p><b>EKINTZAK</b></p>	<p><b>ARDURADUNAK ETA ERAGILEAK</b></p>	<p><b>DENBORALIZAZIOA</b></p>	<p><b>BALIABIDEAK</b></p>	<p><b>JARRAIPEN ADIERAZLEAK</b></p>	<p><b>LORPEN ADIERAZLEAK</b></p>
<p><b>1. Departamentuka, irakasleen artean konpetentzien araberako metodologiaren gaineko hausnarketa egitea eta egiten denari buruz gogoeta egitea.</b></p>	<p>Departamentu buruak, irakasleak</p>	<p>Azaroa-Urtarrila</p>	<p>Programazioak</p>	<p>Departamentuetan burutzen den metodologia aztertzeko txantiloia sortu da</p>	<p>Zehaztu dira departamentuetan egiten diren berrikuntzak.</p>
<p><b>2. Erabilitako metodologiaren gaineko formakuntza antolatzea eta praktikan jartzeko diseinua egitea Departamentuka.</b></p>	<p>Departamentuka, BeA, Zuzendaritza.</p>	<p>Urtarrila-Martxoa</p>	<p>Formakuntza</p>	<p>-Departamentuek adostea egokiena, ikasleen irteera profila abiapuntua eta helmuga izanik. -Formakuntza egutegia sortu eta adostea -Metodologia desberdinen onurak zerrendatu dira.</p>	<p>-Formakuntza egutegia burutu da %100ean. -Berrikuntza proposamenak zehaztu dira: adibide moduan ikas-egoera bat proposatu da departamentuka.</p>
<p><b>3. Departamentuek emaitza akademiko eskasak dituzten kasuetan hobetzeko proposamenak bultzatzea, eta adostea klaustroan eta OOGn.</b></p>	<p>Departamentuak, BeA, batzorde pedagogikoa</p>	<p>Urtarrila-maiatza</p>	<p>ED txostenak, ebaluazioetako emaitzak</p>	<p>-Emaitza akademikoen jarraipena egiteko txantiloia. -Departamentuen, klaustroen eta OOGren aktak. -Departamentuetan eta Batzorde Pedagogikoan</p>	<p>-IUMan txertatu da. -Datorren urteko IUPan txertatuko da.</p>

				IUM-ko eta ED-ko datuak irakasgaika eta taldeka analizatu dira, eta hobekuntza-proposamenak sortu dira.	
--	--	--	--	---	--

<b>2. HELBURUA</b>	<b>Hizkuntza Normalkuntza Proiektua garatzea eta praktikan jartzea, komunitateko partaide guztiak inplikatur, euskararen erabilera handitzeko</b>				
<b>LEHENTASUNEZKO ILDOA</b>	Institutuan erabiltzen diren hizkuntza instrumentalen garapenari dagokionez tratamendu bateratua, errealista, funtzionala eta irekia eskaintzea. Euskararen erabilera institutuko esparru guztietan eta hezkuntza komunitateko kide guztien artean indartzea.				
<b>EKINTZAK</b>	<b>ARDURADUNAK ETA ERAGILEAK</b>	<b>DENBORALIZAZIOA</b>	<b>BALIABIDEAK</b>	<b>JARRAIPEN ADIERAZLEAK</b>	<b>LORPEN ADIERAZLEAK</b>
1. <b>Irrati emanaldia atsedenaldietan eta jai egunetan egitea edo grabatuta uztea.</b>	HNP, Ikasle batzordea	Urtean zehar	Irrati gela	Planifikatu da eta %80an burutu da.	Programatutako ekintzen %80a burutu dira
2. <b>Euskararen erabilerarekin lotutako herriko ekimenetan parte-hartze aktiboa izatea (AEK-k antolatzen duen "Mintzodromoan", euskaraldian, ...).</b>	Elkartek, HNP	Apirilan	Elkarteen beharrezko materialak	Ekintza bakoitzean, ikasleen asebetetze mailaren galdetegia pasatu da.	Ikasleen %80ak parte hartu dute eta asebetetze maila handia izan da.

3. "Bertsozale" Elkartearen Bertsolaritzaren programan parte hartzea hamabostean behin.	Elkartea, HNP, Euskara departamentua	Kurtsoan zehar	Elkartearen programaren materialak	DBH 1.eko gela bakoitza hamabostero ordu bat	Programatutako ekintzen %80a burutu dira
4. Departamentuen programazioan, hiruhilabetean behin gutxienez, ahozko jarduerak planifikatzea eta sistematizatzea (ahozko adierzapenaren txantiloia).	Departamentuak	Kurtsoan zehar	Programazioak, departamentueta ko materialak	Hiruhilabeteka ikasle bakoitzak ahozko aurkezpen bat egin du gutxienez.	Irakasgaietan programatutako ahozko aurkezpenak %80an txertatu dira IUMan eta asebetetze maila handia izan da.

3.HELBURUA	<b>Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren (IHP) analisia egitea, ikastetxeko irakasleriaren hausnarketarekin eta ekarpenekin, berritu behar diren atalak identifikatzeko.</b>				
LEHENTASUNEZKO ILDOA	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan berrikuntza metodologikoan sakontzea, hezkuntza komunitateak hitzartutako printzipio pedagogikoak eta garatu behar diren oinarriko gaitasun eta gaitasun orokorrak kontuan izanez, inklusibitate-printzipioa aintzat hartuz eta informazio eta komunikazio teknologien arloko berrikuntzak, bereziki, bultzatuz.				
EKINTZAK	<b>ARDURADUNAK ETA ERAGILEAK</b>	<b>DENBORALIZAZIOA</b>	<b>BALIABIDEAK</b>	<b>JARRAIPEN ADIERAZLEAK</b>	<b>LORPEN ADIERAZLEAK</b>
1. Hizkuntza proiektuaren lan taldea sortzea eta garapenarekin hastea.	Zuzendaritza, BeA, Normalkuntza, Irakurketa plana	Ikasturtean zehar	Irakurketa plana, Normalkuntza proiektua	Lan tadea osatu da	Hizkuntza proiektuaren hasierako zirriborroa zuzendaritzan aurkeztu da.
2. IHP lan taldea sortzea eta berritzeko diagnostia egitea.	BeA, lan taldea, zuzendaritza.	Ikasturtean zehar	IHP, proiektuak, Berritzeguneko materialak.	-Lan taldea sortu da. -IHParen analisia egin da.	IHPa berritzeko diagnostia egin da.

3. IHP lan taldeak IHPa eguneratzeko eredu adostua osatzea.	BeA, lan taldea	Ikasturtean zehar	IHP	IHPa eguneratzeko eredu adostua egin da.	Adostu da eta %40an garatu egin da.
---	-----------------	-------------------	-----	--	-------------------------------------

4. HELBURUA	Ikasleen egoera emozionala hobetzea, elkarbizitza plana berrituz eta gaur egungo egoerara egokituz, elkarbizitza positiboa eta eskola-komunitatearen ongizatea indartzeko.				
LEHENTASUNEZKO ILDOA	Elkarrekiko errespetua, tolerantzia, lankidetzeta eta elkartasuna printzipioetan oinarritutako bizikidetzaren kudeaketan hezkuntza komunitateko kide guztiak inplikatzeta, ikasleriaren giza trebetasunak garatzen saiatuz.				
EKINTZAK	ARDURADUNAK ETA ERAGILEAK	DENBORALIZAZIOA	BALIABIDEAK	JARRAIPEN ADIERAZLEAK	LORPEN ADIERAZLEAK
1. Osasun emozionala zaintzeko prozedurak adostea eta idaztea, zuzendaria, bizikidetz-behatoki eta orientazio departamentuei esker.	Zuzendaritza, bizikidetz-behatokia, orientabidea	urtarrilan	Berritzegune ko materialak	Erabakiak jasota daude dokumentu batean, kopuru orekatuan dago, eta ondo denboralizatuta daude.	Erabakien dokumentua jaso da
2. Bizikidetzeta plana eguneratzea.	Bizikidetz-behatokia	apirilan	Bizikidetz-plana	Elkarbizitza Plana eta bizikidetzeta arautegia eguneratu dira	Bizikidetzeta plana eguneratu da.
3. Bizikidetzeta batzordearen bitartez, Bullying mota guztien inguruan estrategia bat sortzea, neurri zehatz eta adierazgarriekin, eskola jazarpenaren benetako	Bizikidetz-behatokia, zuzendaritza	Martxoa-apirila	Bizikidetz-plana	Bizikidetz-behatokia, orientazio departamentua eta irakasleriaren artean prebentzio, sentsibilizazio eta interbentzio jarduerak jasota daude dokumentu batean, eta Tutoretza planean	Jazarpenaren kontrako dokumentua jaso da

dimentsioa emateko, kasu hauek ahalik eta azkarren mozteko				txertatu dira.	
4. Estrategia hori ikasgeletan lantzea eta familiekin formakuntza gisa bileretan lantzea.	Irakasleria, orientabidea	Apirila- ekaina	Bizikidetza-plana	Ikasgela guztietan landu dira eduki horiek adostutako uneetan. Familien asebetetze-maila %60an positiboa izan da.	Jazarpenari buruzko formakuntza burutu da eta parte hartzea %60koa izan da
5. Psikologoaren laguntzarekin tutoretza pertsonalizatua indartzea	Orientabidea	Kurtsoan zehar	Psikologoa	Ikasleen asebetetze maila %50an positiboa izan da.	Tutoretza pertsonalizatua martxan jarri da

5. HELBURUA	Ikastetxean ikaskuntza berritzeko prozesuak eta proiektuak sustatzea, dinamizatzea eta koordinatzea, ikasleen ikaskuntzarako lagungarria izateko.				
LEHENTASUNEZKO ILDOA	Kalitateko hezkuntza garatzea, eguneroko lanerako metodologia eta bitarteko eraginkorrak erabiliz eta, bereziki, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen ebaluazioan oinarritutako etengabeko hobekuntza prozesuak ezarriz.				
EKINTZAK	ARDURADUNAK ETA ERAGILEAK	DENBORALIZAZIOA	BALIABIDEAK	JARRAIPEN ADIERAZLEAK	LORPEN ADIERAZLEAK
1. Eremuak lantzen praktika-komunitateen baliabideak eta esperientziak sortzen laguntzea eta material didaktikoa sortzeko lankidetzak-proiektuak sustatzea.	Zuzendaritza, BeA	Ikasturtean zehar	Formakuntza	-Eremuak esperimintatzeko eta ezartzeko konpromisoa hartzea -Praktika komunitatean parte hartzearen alde onak baloratzea -Eremuetan garatzeko ikas-egoerak diseinatzea.	-Eremuak esperimintatzeko eta ezartzeko konpromisoa hartu da. -Praktika komunitatean parte hartzearen alde onak baloratzen dira. -Eremuetan garatzeko ikas-egoerak diseinatzeko gai da eta burutu da.

2. Ebaluazioa: ikaskuntza eta irakaskuntza hobetzeko prozesuan eragiteko bidea- PKPn parte hartzea.	Zuzendaritza, BeA	Ikasturtean zehar	Formakuntza	-PKPn elkarlanean aritzea. -Ezagutzak partekatzea. -Ebaluazio estrategiak garatzea.	-Ezagutzak partekatu dira. -Ebaluazio estrategiak garatu dira. -Emitzak aztertu dira eta irakaskuntza metodoak doitu dira.
3. Ikaslab gelaren erabilera dinamizatzea.	Ikaslab taldea, zuzendaritza	Ikasturtean zehar	Ikaslab gela, Formakuntzako materialak.	Ikas-egoerak sortzeko laguntza eskaintzea klaustruari.	-Laguntza eskaini da. -Ikaslab gelaren erabileraren azterketa egin da.
4. Irakasle berriak eta ikasleak gelaren inguruko informazioa jasotzeko IKASLAB SITE bat sortzea.	Ikaslab taldea, zuzendaritza	Ikasturtean zehar	Ikaslab gela, sarea	Gailuen erabilera gida, erreserba egiteko egutegia, gune desberdinen azalpena... prestatu dira.	- <i>Ikaslab sitea</i> sortu da. -Baliabide biltegia sortu da.
5. Ikaslab gelan egiten diren ikas-egoeren jarraipena egitea.	Ikaslab taldea, zuzendaritza, irakasleria	Ikasturtean zehar	Ikaslab gela, asebetetze galdetegia.	-Ikas egoera prestatu da. -Jarraipena egin da eta balorazioa egin da.	-Ikas egoera burutu egin da. -Asebetetze galdetegiak %80an bete dira.
6. Aurreikusitako STEAM plangintza gauzatzea, aurtengo egoera berriei egokituz, eta Mate, Bio-Geo edo Fiki departamentuekin STEAM proiektu berri bat pentsatu eta aurkeztea.	Zuzendaritza, BeA, Mintegiak	Ikasturtean zehar	Ikastetxeko baliabideak	STEAM topaketetan parte hartu da.	-STEAM proiektu berri bat proposatu da. -Aurtengo proiektua burutu da eta memoria egin da.
7. Pentsaera konputazionala, programazioa eta robotikaren inguruko praktika onak identifikatzea eta horien zabalkundea bultzatzea.	ADI mentorea	Ikasturtean zehar	Berritzeguneko aholkularitza, mentorea.	Digitaldek eskainiko dituen jarraibideak praktika onak ebaluatzeko irizpideak ezarri dira	Pentsaera konputazionala ikastetxean integratzeko antolaketa proposamena egin da.
8. IPDa abian jarri eta bertan zehaztutako helburuak lortzeko diseinatutako ekintzak burutzea.	Digi taldea	Ikasturtean zehar	IPD, balorazio errubrikak.	IPDa abian jarri da eta ekintzak burutzea.	IPDan jarritako helburuak %80an bete dira.



**Dolores Ibarruri BHI -- Abanto-Zierbena**

<b>9.Irakurketa Estrategia garatzea.</b>	Irakurketa arduraduna, departamentuak	Urria-abendua	Aholkularitza zerbitzua, Irakurketa Estrategia, Formakuntza	Estrategia garatu izan da.	Irakurketa Estrategiaren formakuntza burutu da eta parte hartzea %80koa izan da.
<b>10.Irakurketa astea burutzea.</b>	BeA, ikaslab taldea, zuzendaritza, irakasleria	1. ebaluazioa	Liburuak	Entonazioa, ahoskera, arintasuna, erritmoa eta bolumena kontuan hartu dira.	Ebaluazio orria jaso da

## **2.- IRAKASKUNTZA JARDUEREN PLANA**

### **2.1.- ZENTROAREN ANTOLAMENDUA**

#### **2.1.1.- Institutuko ikasleak eta taldeak**

Institutuan hiru etapa daude: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Goi mailako Heziketa Zikloak. Ondoko taulan ikasle-kopuru desberdinak azaltzen dira:

ETAPA	MAILAK	TALDEAK	EREDUAK	IKASLEAK		
<b>DBH</b> (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza)	<b>1.</b>	1D		D	18	
		1E		D	18	
		1F		D	17	
		1G		D	19	<b>72</b>
	<b>2.</b>	2D		D	20	
		2E		D	22	
		2F		D	22	<b>64</b>
	<b>3.</b>	3D		D	19	
		3E		D	20	
		3F		D	20	<b>59</b>
	<b>4.</b>	4D		D	16	
		4E		D	15	
4F			D	15	<b>46</b>	
<b>BATXILERGOA</b>	<b>1.</b>	1D		D	14	
		1E		D	13	<b>27</b>
	<b>2.</b>	2D		D	20	
		2E		D	20	<b>40</b>
<b>Goi mailako HEZIKETA ZIKLOAK</b>	<b>GKAIT-TSEAS/ EFT-TSAF</b>	TSEAS 1A	A		25	
		TSAF 1D		D	25	<b>50</b>
		TSEAS 2A	A		29	
		TSAF 2D		D	28	<b>57</b>
<b>Guztira:</b>		<b>21 talde</b>				<b>415</b>

Batxilergoko 1. mailan 27 ikasle izaki, talde bi daude eta talde horietan batxilergoko bi modalitatetako ikasleak daude: Zientzien eta Teknologiaren Batxilergoko (ZTB) ikasleak eta Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergokoak (GGZB). ZTBko ikasleak 19 eta GGZBkoak 8 direlarik (guztiak Giza Zientzien bidekoak dira, eta Latina I aurten ez dago). Aurten errepikatzaile 2.

Batxilergoko 2. mailan, aldiz, 40 ikasle dira talde bitan banatuta: 30 ikasle Zientzien eta Teknologiaren Batxilergokoak ( 12 Fisikan, 21 Kimikan, 17 Biologian, 8 Marrazketa II-n), 10 ikasle Giza Zientzien kidekoak ( 10 Giza-Matematika II-n).

Goi Mailako [Heziketa Ziklo](#) bi ditugu:

- Batetik, Gizarte eta Kirol Animazioa eta Irakaskuntzako Goi Mailako Teknikaria (GKAIT-TSEAS) "A" ereduan. Bi maila daude maila banarekin, eta guztira 54 ikasle dira.
- Bestetik, Egokitze Fisikoko Goi-mailako Teknikaria (EFT-TSAF) "D" ereduan. Bi maila daude eta maila bakoitzean talde bana. Guztira 53 ikasle dira.

### 2.1.2.- Irakasleria eta tutoretzak

Irakasleak 55 dira guztira. Horien barnean, adinagatik 1/3eko ordu murrizketa duten 3 irakasle daude.

48 irakaslek jardunaldi osoa dute, eta beste 4k jardunaldi zatikatua dute, horrela banatuta:

- 1/3-eko jardunaldia: Matematikako irakasle bat, Gorputz Heziketako irakasle bat.
- 2/3-eko jardunaldia: Matematikako irakasle bat, Filosofiako irakasle bat.

Kurtsoz kurtsoko irakasleriaren banaketa, tutoretzak barne, honako eranskinetan dago:

[I. eranskina](#) - DBH 1. kurtsoko irakasleria.

[II. eranskina](#) - DBH 2. kurtsoko irakasleria.

[III. eranskina](#) - DBH 3. kurtsoko irakasleria.

[IV. eranskina](#) - DBH 4. kurtsoko irakasleria.

[V. eranskina](#) - Batxilergoko irakasleria.

[VI. eranskina](#) - Heziketa Zikloetako irakasleria.

Kurtsoen tutoretzaren banaketari buruz erabakitako elkar akordioak esaten duenaren arabera, irakasleria osoa dagokion tutoretzaz arduratuko da bi ikasturtetan zehar DBHn, behin betiko irakasleek, ahal den neurrian, ardura hartuz. Irizpide honi ezin zaio eutsi batxilergoan ez dagoelako ziurtatzerik 1. kurtsoko tutorea 2.ean ere arituko dela. Aldi berean, DBH 1. mailako ikasleriaren tutoretza lana indartzea erabaki dugu tutore laguntzailearen rolari jarraipena emanez.

### 2.1.3.- Elkargoaren organoak

Institutuko kudeaketarako elkargoaren organoen osaketa, [VII. eranskinean](#) (Elkargoaren organoak) dago, hurrengoak dira:

**Ordezkarien Organo Gorena** (OOG) edo Eskola Kontseilua hezkuntza-komunitatearen

kide guztiek zentroko gobernuan parte-hartzeko organoa da. Organo honek lau batzorde dauzka: Batzorde Iraunkorra, Batzorde Ekonomikoa, Jantoki Batzordea eta Auto-babesa Batzordea. Iaz, hauteskundeak zirela eta, sektore guztiak berritu ziren araudiaren arabera.

**Irakasleen Klaustroa** irakasleek parte-hartzeko berezko organoa da baita zentroan goi mailako koordinazio didaktikorako ere.

**Zuzendaritza Taldea**, bost kideek osatuta, astero behin, gutxienez, bilera egiten duena.

**Koordinazio Pedagogikorako Batzordea.** Institutuko Urteko Plan honetako ekintzak aurrera eramateko ardura hartzen du. Mailetako eta etapetako koordinazioaz arduratzen da eta etapa eta maila ezberdinetan eragina duten ekintzetan irizpide komunak ezarriko ditu. Honez gainera, osagarriko eta eskolaz kanpoko ekintzetarako programa betetzen den ikuskatuko du. Astero ordu bateko bilera egiten du.

**Departamentuko Buruen Batzordea.** Irakasleen klaustroko batzordea da, eta eztabaidagune- eta koordinazio- izaerak ditu. Departamentuko buruen batzordearen funtzio nagusia curriculum-proiektua egitearen, martxan jartzearen eta ebaluazioaren koordinatzea eta proiektuari egin dakizkiokeen aldaketak koordinatzea da. Bere betekizunen artean ere hauexek daude: premiazko izaera duten Institutuko funtzionamendu-aspektuez eztabaidatzea eta zuzendaritza taldearen eta departamentu guztien (eta, beraz, zentroko irakasle guztien) artean informazioa transmititzea. Hamabostean behin batzen da.

**Bizikidetzak Behatokia** Institutuan bizikidetzak kudeatzeko arduraduna da. Bere helburua harreman baikorrak eta bizikidetzak onuragarria ezartzea da. Bizikidetzak Plana proposatzeko eta garatzeko ardura dauka.

#### **2.1.4.- Pertsona bakarreko organoak**

Epigrafe honetan Koordinaketaren Karguak eta Departamentuko Burutzak daude. Hau guztia [VIII. eranskinean](#) (Pertsona bakarreko organoak) dago adierazita.

#### **2.1.5.- Irakasleen koordinazioa**

Irakaskuntza lanak koordinatzeko une ezberdinak behar ditu, aipatutako Elkargoaren Organoetan, kurtsoko lan taldeek aldiro egiten ez dituzten bileretan eta irakasle talde ezberdinek aldiro egiten dituzten bileretan:

- Departamentu bakoitzeko bilera: ordubete astero.
- DBHko 1., 2., 3. eta 4. kurtsotako tutoreak orientatzailearekin ordubete astero mailaka: 1., 2. eta 4. mailakoak asteazkenetan, eta 3. mailakoak asteartetan.
- Batxilergoko 1. eta 2. kurtsokoak orientatzailearekin: ordubete astero asteartetan.
- Heziketa Zikloko tutoreak: beharren arabera batuko dira orientatzailearekin.

#### **2.1.6.- Irakasle eta irakasleen ordutegiak. Aukerakotasuna. Errefortzuak.**

Hezkuntza etapa ezberdinetarako eta urtearen aldi ezberdinetarako Institutuko ordutegiak [X. eranskinean](#) (Institutuko ordutegiak) daude.

Irakasleriaren ordutegiak Eskola Jarduera Dokumentuan (DAE izenekoan) bilduta daude, ordutegi hauek irakasle gelan agerian daude, baita Irakasle eta Zuzendaritza taldearen zaintzak ere.

Irakasgaien banaketa eta mailakako eta eredu irakasleen esleipena taldeetan, aukerakotasuna eta errefortzuak barne, honako puntu hauetan laburbiltzen da:

- Errefortzuak **DBHko 2. mailan**: Matematikan, Euskaran (HBSP-PREE), Gaztelanian, Ingeleran.
- Errefortzuak **DBHko 3. mailan**: Matematika, Euskara, Ingelera eta Gaztelania alorretan egiten dira.
- **DBHko 4. mailan**, ibilbide Akademiko Zientifiko zein Humanistikoa jorratuko dute, Matematika Akademikoak (B) edo Aplikatuak (A) ikasteko aukera eskaini zaielarik: 2 talde Akademikoak eta 1 talde Aplikatuak. Euskara eta Gaztelanian errefortzua daukate ere.

Ibilbide Zientifikoan Fisika-Kimika eta Biologia-Geologiako talde bi daude. Ibilbide Humanistikoan Teknologian eta Ekonomian talde bana daude. Aurten bai dago erlijioa 4. mailan.

4. mailako aukerakoek talde kopuruak honela daude banatuta:

4. mailako aukerakoak	TALDE KOPURUA
BIOLOGIA-GEOLOGIA	2 TALDE
FISIKA ETA KIMIKA	2 TALDE
EKONOMIA ETA EKINTZAILTZA	1 TALDE
TEKNOLOGIA	1 TALDE
ADIERZPEN ARTISTIKOA	1 TALDE
DIGITALIZAZIOA	2 TALDE
KULTURA ZIENTIFIKOA	2 TALDE
MATEMATIKA TAILERRA	1 TALDE

- **Batxilergoko bikoizketak** egin dira Institutuan dauden Batxilergo Modalitateak direla eta, ikasle kopurua, eredu linguistikoak eta ordu kredituaren arabera. Eskaintzen diren irakasgaiak hauexek dira:

		BATXILERGOA 2024-2025	
		Zientzia eta Teknologia	Giza eta Gizarte Zientziak
1.	Ardatzeko ikasgaiak	Matematika I	Ekonomia-Ekintzailtza
		Fisika-Kimika	Mundu Garaikidearen Historia
		Biologia, Geologia eta Ingurumeneko Zientziak	Giza Matematika I
	Berriazko ikasgaiak	Anatomia aplikatua / Teknologia eta ingeniarietza I	
		Ahozko Komunikazioa Ingeleraz / Laborategiko teknikak	

		Zientzia eta Teknologia		Giza eta Gizarte Zientziak	
2.	Ardatzeko ikasgaiak	Matematika II		Latina II	Giza Mate II
		Fisika	Biologia	Geografia	
		Kimika	Marrazketa II	Enpresa eta negozio ereduen diseinua	
	Berariazko ikasgaiak	Jarduera Fisikoa, Aisialdia eta Osasuna / Psikologia			

- Hezkuntza Zikloetan curriculuma emanda dator eta ez dago aukerakotasunik. Goi Mailako Zikloan errefortzu batzuk egiten dira, matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera emandako ordu kredituan oinarrituta.

### 2.1.7.- Ebaluazio datak

Ebaluazio datak [XI. eranskinean](#) (Ebaluazio datak) daude.

Bestalde, DBH eta Batxilergorako honako hezkuntza-taldeen bilera hauek, ebaluazio saioak aparte, ezarri dira talde bakoitzaren ibilbidea komunean jartzeko:

- Hasierako ebaluazioa, DBHn 2024ko urriaren 16an egin dugu; Batxilergoan eta Zikloetan ere urriaren 16an burutu ditugu.
- Planifikatzeko Aurre-ebaluazioa (DBH): 2025eko maiatzaren 7an.
- Planifikatzeko Aurre-ebaluazioa (Batxilergoa): 2025eko apirilaren 2an.
- 2. ebaluazioan koordinaziorako eta ikasleen jarraipena egiteko behar den informazio bilketa idatziz batuko da ikasketa burutzak eta DBHko koordinatzaileak gainbegiratu.

### 2.1.8.- HEZKUNTZA-KOMUNITATEARI INFORMAZIO PLANA

Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko bideak: Hezigunea, webgunea, posta elektronikoa, Drive, ...

#### FAMILIAK:

-Elkarbizitza Arauek adierazten dutenen arabera Gurasoekiko bilera orokorra 2024ko urriaren 9an burutu da, ongi etorria emateko eta kurtso hasierako azalpenak emateko. Tutoreek Informazio orokorra ematen dute bilera horietan: araudia, antolaketa, ... Familia bakoitzari gogoratzen zaio Ikasgunearen erabileraren garrantzia informazioa eskuratzeko. Zuzendaritzak eta tutoreek parte hartzen dute.

- Notak Hezigunearen bitartez helaraziko zaizkie familiei eta ikasleei.

- Tutoreak familia bakoitzarekin, gutxienez, bi bilera (egoera dela eta telefonoz) egiteko konpromisoa hartzen du.

- Horretaz gain, 4. DBH eta Batxilergoko 2. mailako gurasoekin orientazio bilera bana egingo da kurtsoan zehar.

- Elkarbizitza Arauetan adierazten diren gainontzeko bilerak edo kontaktuak ikasturtean zehar egingo dira.

#### **IKASLEAK:**

- Tutorearen eta irakaslearen bitartez, ikasturte hasieran ikasketa-prozesuari informazioa jasotzen dute. Ikasgaien programazioa eta ebaluazio irizpideak zehazten zaizkielarik.
- Kurtsoan zehar, euren proben emaitzak jasotzen dituzte eta ebaluazioaren bukaeran boletina ematen zaie (Hezigunez).
- Horretaz gain, eta beharrezkoa bada, tutore eta/edo arloko irakasleek norbanako bilerak egingo dituzte ikasleekin zehatzago hitz egiteko.
- Aurreko ikasturteko ikasgaiaren bat gainditu gabe badute, kurtso hasieran gogoratuko zaie eta jarraipen bat izango dute.
- Ikasleen ordezkartzari garrantzia emango zaio beti bezala.

#### **IRAKASLEAK:**

- Irakasleei informazio gehiena Mintegi buruen bileraren bitartez helarazten zaie. Zuzendaritza mintegiburuekin biltzen da eta ondoren mintegietan hitz egiten da.
- Urtean zehar beharrezkoak diren klaustroak egiten dira.
- Zuzendaritzak irakasleekin komunikatzeko hainbat tresna dauzka: aurrez aurrekoa, posta elektronikoa, kasilleroa, kortxoa, sareko unitate partekatua, ...

Beste aldetik, Institutuko familiek "Pasionaria" izeneko Ikasleen Guraso Elkarte (IGE) bat osatzen dute, ikasleen familia guztiak parte hartzen dutena eta Institutuarekin aktiboki elkarlanean aritzen dena. IGEko zuzendaritza batzordearen osaketa [IX. eranskinean](#) (IGE, Administrazioa eta Zerbitzuak) dago.

#### **2.1.9.- Administrazioa eta Zerbitzuak**

Institutuak, administrazioa eta zerbitzu lanetarako, [IX. eranskinean](#) (IGE, Administrazioa eta Zerbitzuak) agertzen denaren arabera, honako zerbitzuak eskaintzen ditu:

- Idazkaritza: Idazkari bat dugu.
- Atezaintza: Atezain bi ditugu.
- Jantokia: Katering zerbitzua eskaintzen du "Eurest" enpresak, bi sukaldarien ardurapean. Irakasle batek, Txemi Rodriguezek (Ane Iturbe), alegia, koordinatzen du lanaldi erdiko jardunaldiarekin. 2 sukaldari eta 2 begirale daude ikasleak zaintzeko, txanda batean egiten dute eta 38 ikasle daude guztira.
- Eskola garraioa: Idazkaritzak koordinatuta. Garraiatzen diren ikasleak 82 dira: 31 lerro batean eta bi txandetan "Transportes Vigiola" enpresarekin; 51 ikasle beste lerro batean "Transportes Bidasoa" enpresarekin. Bestalde, "Taxi Patxi"-rekin 2 ikasle garraiatuak dira.
- Garbiketa: Langile bi lanaldi osoan daude Eusko Jaurlaritzakoak eta beste bi kontratatatuak ("Limpiezas Sacir" enpresakoak).
- Lorezaintza: Garbiketaz arduratzen den enpresa berberak egiten du.

#### **2.1.10.- Beste zerbitzu batzuk eta lankidetzak**

Eskaera egin eta gero eta Hezkuntza Sailak agindutako prozedura errespetatuz, Institutuko azpiegitura batzuk udalerriko irabazi-asmorik gabeko honako elkarte hauei lagatzen diegu:

- [Sendoa Atletismo Cluba](#) , [C.V. Gallartaren ahotsa](#) (boleibolan jolasteko).

Beste aldetik, udalerriko edo Meatzaldeko udalerriko elkarteekin edo entitateekin Institutuak dituen harremanak onak dira, elkar lanekoak, alegia. Sarritan gure polikiroldegia erabiltzen dute asteburuetakoko ekintzak burutzeko. Abanto-Zierbenako udaletxearekin, herriko eskolekin, alboko herriko institutuekin, Euskaltegiarekin, Meatzaritzako Museoarekin, etab-ekin mantentzen direnak nabarmentzekoak dira.

## 2.2.- PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK

Irakasleak, orokorrean, eta klaustroa, departamentuak eta irakaskuntza-taldeak, bereziki, irakaskuntza-ekintzak [programatzeko](#) eta onartzeko arduradunak dira, bakoitzak bere mailan. Departamentuek egindako programazio didaktikoak ikasketa burutzan daude hezkuntza komunitateko kideen esku. Irakasle bakoitzak dagokion ikasleriari ezagutarazi egingo ditu.

Horretaz aparte, irakasleria eta ikasleria ebaluazio-irizpideak eta kalifikazio-irizpideen jakitun ere badira, eta web orrian ere argitaratzen dira.

## 2.3.- BERARIAZKO PROGRAMAK

### 2.3.1.- Irakaskuntzarako ekintzak

#### 2.3.1.1.- PEDAGOGIA TERAPEUTIKOKO IRAKASLEAK (PT) ETA HIZKUNTZA INDARTZEKO PROGRAMA (HIPI).

PEDAGOGIA TERAPEUTIKOKOA ([PT](#)) :

-PT irakaslea laguntza-baliabide bat da, eta haren xedea da Haur eta Lehen Hezkuntzako eta DBHko gela arruntetan eskolatuta egonda hezkuntza-premia bereziak (HPB) eta beste hezkuntza-laguntzako berariazko premiak (HLBP) dituzten ikasleak artatzea.

-[PT](#) irakasle bat dago; 1. DBHn 2 ikasle ditu, 2. DBHn 5 ikasle eta 3. DBHn 1. Ikasle horiek Berritzeguneko zerrendan daude.

-Orientabide-departamentuaren koordinazio pean, Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) dituzten ikasleez arduratzen da, eta, horretarako, ikasgela espezializatu bat dago.

[HIZKUNTZA INDARTZEKO PROGRAMA](#) (HIPI):

Programa honen helburu nagusia ikasle etorri berriei harrera egitea eta inklusioa bultzatzea da, gure hizkuntza eta kulturaren murgiltzeko. Hasierako pausua komunikazio mailari dagokio eta eskolan beharrezkoa duten hartu-emanen oinarritzen da. Helburua eskolatzeko bide horretan kideekin bat egitea izango da eta hizkuntzaren ezagutzaren bidez gure egunerokoa murgiltzea. Hizkuntza murgiltzeko programa bat da, eta hizkuntza irakatsia eskuratzeko prozesua erraztea du helburu. Hiru irakasle daude eginkizun honetan: Elena Lopez 5 ordurekin, Marian Alonso 2 ordurekin eta Joseba Andujar ordu batekin. Aurten 6 ikasle ditugu programa honetan.

#### 2.3.1.2.- HEZKUNTZA BERARIAZ SENDOTZEKO PROGRAMA ([HBSP](#))

Arduraduna Marian Alonso da.



Ikasturte honetako helburua ikasle horien jarraipen zehatza egitea eta gainditu gabeko arloak gainditzeko laguntza ematea da.

Jardueren artean aipatzekoak dira:

- Tutore eta gurasoekin harremanak sendotzea
- Proiektu komunitarioaren orduan ikasteko teknikak erabili arlo desberdinei begira.

Ikasturte honetan irakasle bat dago lanaldi erdiarekin, Marian Alonso alegia, 9 orduekin; DBHko 2. mailako D eta F taldeetako 12 ikasleekin lan egingo du, gelaren barruan, Euskara (6 ordu) eta Gizarte (2 ordu) irakasgaietan. Proiektu komunitarioak (ordu bat) irakasgaien banakako tutoretza egiten du 2.Dko 6 ikasle eta 2.Fko 6 ikasleekin.

### 2.3.1.3.- IKASLE IJITOEKIKO ESKU-HARTZE PROIEKTUA

[AMUGE](#) izeneko elkarteak, Ijitoen Eskolatzeko Hobekuntzarako taldearekin koordinatuta, Institutuko ikasle ijitoekin egiten du lan bi arlotan, nagusiki: norbanakoko tutoretza eta familiekiko arreta, irakasleekin, tutoreekin eta ikasketa burutzarekin koordinatuz. Astero hezitzaile bat etorriko da ostegunetan oraindik zehaztu gabe dagoen ikasle batzuekin egotera gelan bertan, ikasketa burutzarekin eta DBHko koordinatzailearekin bilera bat egiten du eta baita norbanakoko tutoretzak egin ere.

### 2.3.1.4.- ENPLEGURAKO HEZIKETA JARDUERA PROGRAMA

[2024-2025 ikasturtea antolatzeko moduari buruzko Heziketa Sailburuordearen Ebazpenean](#) esaten den moduan, Begoña Llorentek, Heziketa Zikloko koordinatzaileak, koordinatutako enplegurako heziketa jarduera programa bat diseinatu da, [XVI. eranskinean](#) (Enplegurako Heziketa Jarduera Programa) azaltzen dena.

**HAUEXEK DIRA HELBURUAK:**

- Heziketa-zikloetako ikasleei lan-merkatuan gaitasun handiagoa izateko behar dituzten baliabideak ematea.
- Ikasleek enpresetako lan-eskaintzak eskuratu ahal izateko neurriak ezartzea.

**ETA JARDUERAK:**

- Jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako gai aitzindarienei buruzko eskola magistralak ematea.
- Lan-poltsa eguneratu bat sortzea hedapen-talde baten bidez, heziketa-zikloetako ikasle guztiek eskura dezaten.
- Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan garrantzitsuak diren pertsonak ekartzea, beren ezagutzak eta esperientziak ikasleekin parteka ditzaten.

### 2.3.1.5.- LANBIDE HEZIKETA

[Lanbideak](#) enplegagarritasuna hobetzeko eta laneratzea sustatzeko ikastaroak eskaintzen ditu urtero. Bi lerro berezietan programatzen ditu ikastaro horiek: bata lehentasunez langabezian daudenei bideraturik, kasu askotan kontratazio-konpromisoarekin, eta beste bat lehentasunez lana duten pertsonen bideraturik.

#### HELBURUAK:

- Ikastetxearen Lanbide Heziketa “eskaintza partziala” eskaintzea, gure ikasle-ohi eta egungo ikasleen formazio beharrei egokitzeko.
- Kalitateko hezkuntza garatzea, eguneroko lanerako metodologia eta bitarteko eraginkorrak erabiliz eta, bereziki, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen ebaluazioan oinarritutako etengabeko hobekuntza prozesuak ezarriz.

#### EKINTZAK:

- LANBIDE erakundeari formazioa burutzeko baimena eskatzea. [Web orrialdean](#) informazioa eskegitzea.
- KOREOGRAFIK (2), KROSS TRAINING (1) eta ELIKADURA ETA KIROLA (2) izeneko ekintza formatiboetarako antolakuntza-erabakiak hartzea.
- Ekintza formatiboa egungo gure ikasleen artean, ikasle-ohien artean eta Abanto-Zierbena-ko langileen artean zabaltzea.
- KOREOGRAFIK, KROSS TRAINING eta ELIKADURA ekintza formatiboak ikasleen asebetetzeaz gauzatzea.

### 2.3.2.- Berrikuntza eta Hobekuntza proiektuak

#### 2.3.2.1.- HEDATZE PROIEKTUA

2024ko maiatzaren 14an, [HEDATZE PROIEKTUA 2024-2026 deialdiaren Ebazpena](#) argitaratu zen. Hausnarketa luze baten ondoren eta betekizun guztiak asetu (klastroaren 2/3, OOGren gehiengo osoa, familien 2/3, DBHko 3-4. mailako ikasleen 2/3) eta gero, eskaera egin eta onartu egin ziguten.

[HEDATZE](#) proiektuaren iraupena bi ikasturtekoa izango da eta, ikasturte bakoitzaren amaieran, proiektuaren helburuen betetze maila balioetsiko duen ebaluazio prozesua egingo da.

Horren ildotik, irakasleriak konpromisoa hartzen du [proiektuan](#) zuzenean parte hartzeko ikasleekin, ohiko eskola jardunalditik kanpo. Hortaz, ebaluazioa gainditu gabe edo zailtasunak dituztenentzat errefortzuak, aurreko urteko gainditu gabeko irakasgaiak prestatzeko errefortzuak, departamentuek eskaintzen dituzten bikaintasun tailerrak edo bestelako jarduerak eskainiko ditugu. Ikastetxeko proiektua izaki, estamentu guztiek parte hartu behar dute. [XVIII. Eranskinean](#) azalduta dagoen bezala.

Arduradunak Jose Luis Andrade (Jenifer Martínez) eta Nieves Garijo dira.

Ikasturte honetan, HEDATZE proiektua eman digutenez astelehena, asteartea, asteazkena eta ostegunetan hezkuntza-eskaintza zabaldu egingo da ikastetxeko hainbat gunetan, 15:00etatik 16:30era.

HEDATZE proiektu honetan hiru motatako tailerrak izango ditugu: ERREFORTZU TAILERRAK, BIKAINASUN TAILERRAK eta ATSEDENALDIRAKO JARDUERAK.

- **ERREFORTZU TAILERRAK:** Aurreko ikasturteko gainditu gabeko irakasgaiak dituzten edo irasgai horietan zailtasunak dituzten DBHko ikasleentzat. Guztiz egokia da familiek kontutan hartzea irakasleok egindako tailer hauetan parte hartzeko proposamenak eta aholkuak.

- **BIKANTASUN TAILERRAK:** Jarduera interesgarriak eta gaitasun desberdinak garatu nahi dituen ikasleentzat.
- **ATSEDENALDIRAKO JARDUERA LUDIKOAK:** Jolas ordua aberasteko proposamen berriak.

#### Proiektuaren helburuak:

- Ikastetxean ekitatea eta bikaintasuna hobetzeko hezkuntza eskaintza zabaltzea:
  - Zailtasun sozio-ekonomikoak dituzten ikasleei laguntza egokituagoa emanez.
  - Ikaste edo gizarteratze arazoak dituzten ikasleei tresnak eta estrategiak emanez.
  - Bikaintasuna ahalbideratzeko gelako lanetik haratago sakondu nahi duten ikasleei aukerak emanez.
  - Ikasleriak ikas ohiturak barneratu ditzan ikasten ikasteko gaitasuna lehenetsiz.
- Ikasleen autonomia eta konpetentziak garatzeko baliabideak eskaintzea, euren interes eta beharren arabera jarduerak eskainiz.
- Zailtasunak dituzten ikasleei ikasgaiak gainditzeko laguntzea, hezkuntza errefortzua handituz eta hezkuntza ibilbidea erraztuz.
- Eleaniztasunaren bidean sakontzea ordu-tegi barruan hizkuntza gehiago eta ahozketasuna lantzeko aukerak emanez.
- Etxerako lanak zein talde lanak egiteko baliabideak eskaintzea, baita behar den kasuetan laguntza ere.
- Ikasleen integrazioa erraztuz, eta jarduera fisikoaren bidez ohitura osasungarrien barneratzea finkatzea.
- Eskola giroa eta elkarbizitza hobetzeko bidean jarraitzea, ikasle, guraso eta irakasleen arteko harremanak sendotuz.

#### 2.3.2.2.- HIZKUNTZA NORMALKUNTZA

Curriculumak jasotzen duen bezala, Oinarrizko Hezkuntzaren printzipioetan, Oinarrizko Hezkuntzako arloek eta jakintzagaiek euskal kulturaren eta hizkuntzaren dimentsio espezifikoa txertatu behar dutela. Hori dela eta, aholkularitza bideratuko da Berritzegune Nagusitik, Hizkuntza-Proiektuetan gai hauek jorratu nahi dituzten ikastetxeetan; [ULIBARRI](#) mintegietan ere landuko da.

1998/99 ikasturtean hasi ginen, eta horrela, urtero jarraipena eman diogu Institutuan euskararen erabilera sustatzeari eta euskal kultura hurbiltzeko ekintzak bultzatzeari. Zeregin honetan aurten hiru irakasle daude: Izaskun Larrazabal (2 ordu), Idoia Muruaga (2 ordu) eta Marian Alonso (4 ordu).

#### HELBURU NAGUSIAK:

- Arlo desberdinetan ahozketasunaren programarekin jarraitzea.
- Irakasleen arteko komunikazioa euskaraz izan daitela suspertzea.
- Institutu barruan eta herri mailan dauden eskolaz kanpoko ekintzak aztertzea, euskararen erabilpena neurtzeko.

Ahozketasunaren inguruan hasitako bideari jarraipena emango diogu. Programazioetan hori islatzen dela baieztatzea helburuetako bat da. Era berean hori betetzen duten jarduerak zehaztea eta ebaluatzea.

Beste aldetik, funtsezkoa ikusten dugu idatzizko ekoizpenetan ere, erabilera zuzena kontuan hartzea eta arlo guztietako programazioetan horrela jasotzea.

IKASTURTEKO JARDUERAK, EKINTZAK:

[Normalkuntzako](#) ikasturteko planean zehaztuta daudenak.

### 2.3.2.3.- OSASUNA, HEZKIDETZA ETA BIZIKIDETZA PROIEKTUAK

**Osasuna proiektuaren ikasturteko helburuak:**

Ikasturte honetako arduradunak proiektu honetan Oier Etxebarria eta Maitane Ni3n dira. Osasun proiektuaren bidez gure ikasleen egoera sozio-emozionala eta ongizate pertsonala bere osotasunean (gorputza eta burua) zaintzea eta ondorioei aurre egitea da.

Ardatz hauetatik bideratzen dugu gure lana: Garapen pertsonala eta besteekiko harremanak. Ez bakarrik norberaren autonomiarako eta ekimenerako baizik eta gizarterako eta herritartasunerako ere gaitasunak landuz. Zehazki:

- 1.- Gorputza eta Burua zaintzea: Elikadura, kirola, osasun ohiturak, sexualitatea eta auto-estimua, mindfulness (antsietatea eta norbere burua ezagutzea).
- 2.- Gizarte harreman onak izateko estrategiak.

**Osasun proiektuaren ikasturteko jarduerak eta ekintzak:**

Kasu konkretu batzuetan kanpoko laguntza jasotzen dugu, aurtan horrela planifikatuko dugu:

- 1. DBHn: Dolores Ibarri ezagutuz (urtarrila-otsaila).  
Zibersegutasuna tailerrak (urrian).  
Iñaki Zubizarreta (Bullying-urtarrilan).
- 2. DBHn: Sexualitatean hezitzeko programa laburrak. Biko arloak. (abenduan).  
Zibersegutasuna tailerrak (urrian).  
Iñaki Zubizarreta (Bullying-urtarrilan).
- 3. DBHn: Zibersegutasuna tailerrak (urrian).  
Drogen kontsumoa (martxoan). *Txaramela* tailerra (otsailan).
- 4. DBHn: Dolores Ibarri ezagutuz (otsailan).  
Zibersegutasuna tailerrak (urrian).  
Bideratu zure etorkizuna (abenduan).  
Drogen kontsumoa (martxoan)
- 1. Batxilergoan: Dolores Ibarri ezagutuz (azaroa-abendua).  
Zibersegutasuna tailerrak (urrian).

- 2. Batxilergoan: Zibersegutasuna tailerrak (urrian).

Ikastetxeko komunitatearekin Ziberbullyng-ari buruz formazioa *Pantallas Amigas* taldearekin izango da. Bestalde, Ikasle laguntzaileekin ekintza ezberdinak landuko dira kurtsoan zehar: Giza gaitasunak, gatazkak... . Baita ere, Agenda 30 proiektuan antolatuko ditugu ekintzak eta Udalarekin ere.

### Hezkidetza Proiektua:

Ikasturte honetako arduraduna proiektu honetan Marian Alonso da, eta Maitane Ni3n laguntzaile gisa arituko da.

Hauek dira hezkidetzaren zutabeak edo helburuak:

- Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean.
- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista.
- Emakumeen jakituriaren integrazio eta haien ekarpen sozial eta historikoa.
- Gatazken eraldaketa baketsua, hezkidetzako elkarbizitzarako proiektuen bidez.
- Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa.
- Espazioak ikastetxean eta eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak.
- Berdintasunezko hezkuntza afektibo eta sexuala.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria

kasuetan esku-hartzea.

Hezkidetz

a proiektuan **Ekintzak** antolatzeko momentuetan bi ibilbide jarraitu ditugu:

- Tutoretza Plana
- Arratsaldeko tailerrak

Dena dela, beste arloetako irakasle batzuek ere parte hartuko dute ekintza horietan, ez bakarrik tutoreak.

Horretaz gain, erakunde desberdinekin harremanetan egon gara zutabe horiekin lotutako helburuak jorratzeko:

- Pantallas amigas
- Kontsumobide
- Medicus Mundi
- Biko Arloak
- Abanto-Zierbenako Udala, Alkatea, zinegotziak eta Berdintasuna teknikaria
- EMELKA (Las Carreras-ko emakumeen elkarte)
- GALLARRETA

- ADIZMI
- Sanfuentes-ko emakumeen abesbatza
- GURE ARTEAN (Antzerki taldea)
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
- EMAKUNDE
- MEATZARI MUSEOA
- BERDINDU

**Bizikidetza** proiektuaren helburuak:

Ikasturte honetako arduradunak proiektu honetan Oier Etxebarria eta Maitane Nión dira. Helburuak:

- 1.- Ikasle laguntzaile taldea indartzea eta formatzea
- 2.- Bitartekaritza taldea sortzea eta formatzea
- 3.- Bitartekaritza proiektua praktikan jartzea
- 4.- BAT Taldea aurrera eraman
- 5.- Harrera jarduerak praktikan jarri
- 6.- Bizikidetza Behatokiarekin jarraitu

**Bizikidetza** proiektuaren ekintzak:

- 1.- Tailerrak antolatu ikasle laguntzaileen proiektua eta bitartekaritza aurrera eramateko
- 2.- Irtenaldiak antolatu
- 3.- Aste buru batean kanpora joatea formazioa egiteko
- 4.- BAT taldea bildu, formazioa prestatu eta behar den momenturako prest izateko
- 5.- Kurtsoan zehar 4 saio antolatu Bizikidetza Behatokiko partaideekin
- 6.- Kanpoko agenteekin ikastaroak antolatu
- 7.- Gurasoekiko formazioa prestatu
- 8.- Osasuna eta hezkidetza programekin helburuak eta ekintzak adostu

Helburu nagusia proiektua osatzea eta helburu bakoitzeko ekintzak antolatu eta ebaluatu.

Kurtsoan zehar eta batez ere data aipagarrietan ikas komunitatea sentsibilizatzea eta ekintza desberdinetan parte hartzen animatzea: Beldur Barik kanpainan, Azaroak 25 ekintza ofizialetan eta institutuan egindakoetan parte hartzea, Martxoak 8 inguruko ekintzak antolatzea emakumea gizartean ikusgai egin, Tratu onen aldeko kanpaina zabaltzea.

#### **2.3.2.4.- ESKOLA AGENDA 30**

Ebazpenaren 29. orrian azaltzen den bezala, [Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak \(GJH\)](#) barne biltzen dituen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda berriarekin bat

etorri, eta [2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako hezkuntzako Estrategia](#) garatzen jarraitzeko, ikastetxeak modu sistematikoan printzipio ekosozial eta hezitzaileak beraien eguneroko jardunean txertatuko ditu.

2030 Agenda garapenerako nazioarteko agenda berria da, eta 2015eko irailean onartu zen Nazio Batuetan. Agenda honen helburua mundu osoan giza garapen jasangarriaren alde borrokatzeko tresna bat izatea da, eta pobrezia errotik desagerraraztea, ahultasunak eta desberdintasunak murriztea eta jasangarritasuna sustatzea ditu funtsezko oinarri. Aukera paregabea da 2030. urtea baino lehen mundua eraldatzeko eta pertsona guztientzako giza eskubideak bermatzeko

Gure herriko ikastetxeek jasangarritasunaren aldeko heziketa bultzatzea erabaki dute eta horretarako [ESKOLA AGENDA 30](#) proiektua aurrera eramatea erabaki dute, bai herrian eta baita ere ikastetxean.

Beraz Eskolako Agenda 30, guztion konpromisoa da, eta, bestetik, ikastetxearen eta haren ingurunearen ingurumen- eta gizarte-hobekuntzaren aldeko ekintza-plana da.

Ikasturte honetako arduraduna Ainhoa Del Campo da.

Kontestu honen barruan 2024-25erako HELBURUAK, honako hauek lirateke:

- Jasangarritasunaren kultura hezkuntza-komunitatean integratzea, bereziki ikasleengan, arazo ekologiko eta sozialetan esku hartzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta konpromisoak garatuz, tokiko eta munduko eremuan, eta ikastetxeko eta tokiko ekintza eraldatzaileak egitea, bai banakakoak, bai kolektiboak, orain eta etorkizunean.
- Gaur egungo Eskolako Agenda 2030 programak herritar ahaldunduak eta kontzientzia ekosoziala dutenak sortu nahi ditu, ikasleek modu aktiboan parte har dezaten udalerrri gero eta jasangarriagoak lortzeko bidean. Garapen Jasangarriako Helburuak (GJH) erreferentziazat hartuta, ekintzara igarotzeko garaia da.
- Ikasturte honetan proiektuaren lehenengo 2 faseak landuko dira; hau da, diagnostiko eta motibazioa, eta horretarako programaren diseinua burutuko da.
- Eskola Jasangarriaren ziurtapen agiriaren oinarriak mantendu.
- Aurten GARAPEN JASANGARRIRako helburu hau landuko dugu:  
12:EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA

2024-25erako JARDUERAK honako hauek lirateke:

- Proiektuaren esku-hartze fasea martxan jartzea.
- Eko-ordezkariekin bilerak egitea, gela bakoitzean suertatzen diren proposamenak bildu eta Ikasleen Batzarrean erabakitakoa zabaldu gero geletan eko-ordezkarien bitartez.
- Ingurumenarekin eta iraunkortasunarekin lotutako jarduerak burutuko dira: Lurraren eguna ospatuko da, Ekoetxerako irteera eta Zierbenako hondartzaren garbiketa, besteak beste.
- Abanto-Zierbenako Ingurune-Sailak antolatzen dituen Udal Foroetan eta jardunaldi teknikoetan parte hartuko da.
- Zuhaitz eguna ospatuko dugu.

### 2.3.2.5.- DIGITALIZAZIOA

ARDURADUNA: Iñaki Garcia de Bikuña. LAGUNTZAILEA: Aingeru Oliván.

HELBURU NAGUSIAK:

- IPDan jasotako helburuak lortzeko diseinatutako ekintzak burutzea;
- IKT baliabideen mantenua eta hobekuntza.
- Hornikuntza hobekuntza. Pantaila berrien kudeaketa: kokapena eta erabilera protokoloa.
- Webgunea eta Sare sozialen kudeaketa.
- Digitalki Curriculum egokitzapeneterako, ikas-egoeren sorrerarako edota ebaluaziorako laguntza eskeintzea.
- Mugikorren eta erloju adimentsuen erabileraren arautegia berritzea.
- Pribatutasuna eta datuen babeserako protokoloa gauzatzea.
- Ikasleen konpetentzia digitalerako irteera profila amaitu eta publikatzea.

Hemen gure IPDa: <https://doloresibarruribhi.eus/wp-content/uploads/2024/06/014010-IPD-Dolores-Ibarruri-webgunerako.pdf>

JARDUERAK, EKINTZAK:

- IPDa abian jarri eta bertan zehaztutako helburuak lortzeko diseinatutako ekintzak burutu.
- Eraginguneko BeAtar taldearekin koordinatu eta esperientziak partekatu, arlo digitalean inportatu ahal ditugun ideiak hartzeko.
- Ikastetxearen digitalizazio batzordean jardun; Koordinazio bilerak, IPD ekintzak, aukera berriak antzeman...

### 2.3.2.6. IKASLAB GELA

2023ko ekainan Digitalizazioa eta berrikuntza teknopedagogikoaren Berritzegune nagusiko aholkulariak azaldu zigun [Etorkizuneko Gela](#) bat sortu nahi zutela, eta gure ikastetxea aukeratua izan zen Bizkaian, beste 7 ikastetxeekin batera.

Proiektu honek ikasteko espazioak teknologiekin batera malgutzeko aukera pedagogikoak ustiatzea proposatzen du, metodologia aktiboen bidez irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak hobetzeko. Ikaskuntza-gune zonifikatu eta birmoldagarria aurkezten du. Espazio horien helburua irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak bultzatzea eta suspertzea da, ikaslea prozesu osoaren protagonista bihurtuz.

Hortaz, Metodologia aktiboen bidez eta espazioak eraldatuz, ikasleak beste modu batez ikasteko aukera da.

120 m<sup>2</sup>-ko gela bat eraiki ziguten 2023-24 ikastutean zehar, eta hornitu ere egin genuen.



Bertan guneak ezarri genituen. Guneen ezaugarriak: irekiak eta jarduera anitzetarako baliagarriak, interdependentiak, guneen arteko loturak ezarri behar dira; diziplinei baino garatu nahi diren prozesu kognitiboak erantzuten diote; Interkompetentzialak dira, espazioa dinamikoa da uneoro, agente hezitzaileak espazioa proposatu eta ikasleek horretan eragiteko eta eraldatzeko aukerak dituzte. Guk 4 gune ezarri genituen:

**IKERTU:** Miatu, bilatu, galderak egin.... Espazioak malguak izan behar dira. Erronkak eta proiektuak irakasleak gidatuko lituzke, baina azkenean ikasleak egin behar dute.

**SORTU:** Sormena, diseinua, planifikazioa, ... Ikaslea bere ikasketa prozesuaren protagonista izan behar da.

**KOMUNIKATU:** Zabalduta egin duguna. Komunikatu gunea talde handira zuzentzeko eta hartu emana eta entzumen aktiboa sustatzeko espazioa da.

**PENTSATU:** Espazio hau FCLan agertzen ez den gune bat da. PENTSATU gunea ez da espazio fisiko bat, gelan toki propio bat hartzen duena; beste gune guztietan zeharka agertzen eta eragiten duen eta gune guztiak elkar lotzen dituen espazio transbertsala baizik.

Proiektu honen arduraduna Jone De Pablo da.

#### IKASTURTEKO HELBURUAK

- Ikaslab gelaren erabilera dinamizatzea.
- Ikaslab gela beharren arabera hornitzen joatea.
- Topaketetan parte hartzea.
- Eremuekin lan egiteko ikas-egoerak eta proiektuak sortzea.
- Hezkuntza metodologia eta praktika pedagogikoak hobetzea metodologia aktiboak erabiliz ikasleen kompetentzien garapena lortzeko.

#### JARDUERAK, EKINTZAK

- Ikas-egoerak sortzeko laguntza eskaintzea klaustroari.
- Gune bakoitzerako baliabideen bankua sortzea.
- Irakaslegoarentzako gailuen erabilerearen inguruko formakuntza bat antolatzea gelaren erabilera dinamizatzen.
- Irakasle berriak eta ikasleak gelaren inguruko informazioa jasotzeko IKASLAB SITE bat sortzea (Gailuen erabilera gidekin, erreserba egiteko egutegia, gune desberdinen azalpena, ...)

### 2.3.2.7. STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika, Arteak eta Humanitateak)

ARDURADUNA: Iñaki Garcia de Bikuña. LAGUNTZAILEAK: Aingeru Olivan eta Jone de Pablo.

HELBURUAK:

- laz aurkeztutako [STEAM](#) proiektuan jasotako helburuak eta ekintzak aurrera eramatea.
- STEAM proiektuan aurreikusitako material eta baliabideak erostea eta ikaskuntza egoeratan erabiltzea.
- STEAM mintegietan parte hartzea, beste ikastetxeen esperientziak ezagutzeko.
- Amaierako memoria egitea eta datorren ikasturterako proposamenak jasota proiektua eguneratzea.
- Izena eman genuen SteamSare tailer eta proiektuetan parte-hartzen saiatzea.
- Hurrengo ikasturterako Teknologia eta Informatika ez den beste departamentu batek STEAM proiektu bat aurkeztea.

#### JARDUERAK, EKINTZAK:

- Aurreikusitako STEAM plangintza gauzatu, aurtengo egoera berriei egokitzuz.
- STEAM proiektuan aurreikusitako material eta baliabideak erosi eta ikaskuntza egoeratan erabili.
- STEAM mintegietan parte hartu, beste ikastetxeen esperientziak ezagutu.
- Amaierako memoria egin eta datorren ikasturterako proposamenak jasota proiektua eguneratu.
- STEAMSAREko mentoreekin koordinatu eta planteatzen dizkiguten erronkak burutzen saiatu.
- Mate, Bio-Geo edo Fiki departamentuekin STEAM proiektu berri bat pentsatu eta aurkeztu.
- Etapa guztietan, Teknologia eta Digitalizazio ikasgaietan, dagokien STEAM jarduerak gauzatu. Robotika eta pentsamendu konputazionala etapa guztietan lantzen dela bermatuz.

#### 2.3.2.8. IRAKURKETA PLANA

Hezkuntza Sailak 2024-2027 epealdirako [Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia](#) hezkuntza komunitate osoaren eskura jarri berri du. Irakurketa Estrategiaren arrazoia da ikastetxe batean irakurketaren tratamendua antolatzea eta artikulatzea, helburu argi eta zehatz batetik abiatuta: irakurle onak prestatzea, jakitun izanik ikaslearen irakurtzeko kompetentzia garatzeko, jarduera koordinatua eta behar bezala programatua behar dela.

Ikastetxeak ondo zehaztutako programazio bat behar du, curriculum-arlo guztietatik irakurketaren tratamenduari aurre egingo diona, ikasleei irakurketaren oinarriko prestakuntza bermatuko diona eta etorkizuneko garapenaren oinarriak irakurle trebe gisa jarriko dituen.

2024-2025 ikasturtean Hezkuntza Saileko aholkularitza zerbitzuak hasiko dira udaberrian argitaratutako Irakurketa Estrategia ikastetxeei ezagutarazten. Gure ikastetxeak 2024-2025 ikasturtean Hedatze programan parte hartuko duenez oinarriko prestakuntza jasoko du Irakurketa Estrategia berriaren gakorik garrantzitsuenak ezagutzeko.

#### ZEREGINAK:

- Irakurketa Estrategia garatzea. Argitaratu berri den [Euskal Hezkuntza](#)

[Sistamarako Irakurketa Estrategia](#) ikastetxean ezartzea, bere baitan hartuko dituena jakintzagai guztietako testuetan ikasleen ulermen gaitasuna hobetzeko proposamenak, eta irakurtzeko ohitura eta irakurzaletasuna sustatzeko proposamenak. Lortutako emaitzak ebaluatzea eta etengabe hobetzeko neurriak proposatzea.

- Liburutegia berriztuta eta hornituta dugunez irakurtzeko ohitura garatzeko espazio komuna dela zabaltzea.

Ikastetxearen ibilbidea eta irakurketaren inguruan alde aurretik hartutako erabakiak aztertu ondoren, irakurketaren inguruko praktika didaktikoen autodiagnostikoa egin da, ikastetxearen beharrak hautemateko. Gerora, uste izan dugu [Irakurketa Plana](#) praktikan jartzearekin batera egin behar dela, eta, beraz, gure lanaren ardatza izatea erabaki dugu bi urtez. Horrela, lehenengo urtean hartutako erabakiak hurrengoan indartu ahal izango dira.

Nahiz eta Hezkuntza Sailak Irakurgunean ikastetxeetan irakurketaren gainean egiten den lana hiru multzo handitan ( irakurtzen ikasi, ikasteko irakurri eta irakurtzeko ohitura) banatuta egon, ikastetxe honetan uste dugu "ikasteko irakurtzea" eskolaren funtsezko xedearekin lotuta dagoela, hots, ikaskuntzarekin, eta, beraz, irakasleen kohesioa errazten duen elementua dela. Gainera, hobekuntza- planean eta hizkuntza-proiektuan lehenesten dugun ildo da. Horregatik, lehenetsua emango diogu atal honi, irakurzaletasuna garatzeak gure ikasleen bizitzan duen garrantziaz ahaztu gabe.

Ikastetxearen ibilbidea eta sarreran jasotako analisiak kontuan hartuta, honako jardueraildo hauei ekitea erabaki dugu:

Irakurtzeko ohitura garatzea ikasgelan, liburutegian, familian eta ingurunean.

#### IKASTURTE HONETAKO HELBURUAK:

Aurtengo helburuei dagokienez, iazko ikasturtekoak lantzen jarraituko dugu, kontuan hartuta berrikuntzako koordinatzaileek eman beharko diotela koherentzia proiektuari, ikasturte honetan ez baitugu plan honetarako batzorde espezifikorik.

Testuak ulertzea eta interpretatzea prozesu luzea eta konplexua da. Testuinguru formal zein ez formalean irakurtzen dugu; gure lana, eskola gisa, irakurle gaituak bihurtzeko prozesua gidatzea izango da.

Horrela bada, ikasteko *irakurri* ardatzean jarri ditugu gure indarrak eta hauek dira gure ikasturte honetarako helburu nagusiak:

- Ikasleen ulermena hobetzea ikasgai guztietan, gai guztietako irakurgaiak behar bezala deszifratzeko eta esanahia eraikitzeko.
- Irakasgai guztiek parte hartzea, ikasleak, testu ulermena, hizkuntzetako gaia bakarrik ez dela konturatzeko.
- Hau guztia burutzeko aurten ez dago liberazio ordurik.

#### 2.3.2.9. ESKOLA KIROLA

##### PROGRAMAREN HELBURUAK:

- Institutuko ikasleen artean eskola-kirolaren praktika sustatzea.
- Eskola-kirola hezitzailea, integratzailea eta hezitzailea izan dadin laguntzea.

### Jarduera nagusiak:

- Institutuan egiten diren jardueren taldeak, parte-hartzaileak, izen-emateak, instalazioak eta ordutegiak antolatzea.
- Familiei beharrezko informazioa ematea diputazioak antolatzen dituen jolas-jardueretan izena eman ahal izateko.
- Ikastetxeari diputazioaren eskola-kirolaren programan idaztea eta diru-laguntzak eskatzea.
- Ikastetxeko talde guztietarako entrenatzaileak lortzea.
- Hezitzaileekin bilerak egitea, prestakuntza hobetzeko eta eskola-kirolaren balioak entrenamenduetan eta partidetan egon daitezen zaintzeko.

Gorputz Heziketa mintegiko irakaslea den Begoña Llorentek du jarduera hauen ardurua, astero eskola-ordua ez den ordu-erdi bat izango duelarik. Irailetik ekainera Jarduera fisikoak bultzatzea du helburu. Honetarako Guraso Elkarteak behar diren monitoreak esleituko ditu, batez ere Institutuko Heziketa Zikloetako ikasleak, gastuak ikasle eta guraso-elkartearen artean ordainduko direlarik.

Eskola-kirolaren barnean ere beste bi modalitate daude. Batetik, lehiaketakoa (*boleibola* eta *herri-kirolak*) eta bestetik aisialdikoa. Bizkaiko Foru Aldundiko [Eskola Kiroleko](#) zerbitzuak kudeatutako jarduerak ere egiten dira. Garrantzitsua da azpimarratzea jarduera guztiak euskaraz egingo direla, besteak beste: Urpekaritza, txirrindularitza, defentsa pertsonala, esgrima, eskia, hipika, mendiko jarduerak, padela, izotz gaineko patinajea, surfa, mahai-tenisa, arku-tiroa, boleibola, dantza modernoa eta futbola.

### 2.3.2.10. BERRIKUNTZA PROIEKTUA

Kurtso hasierako [Ebazpenak](#) (14, 15, 16, 51 eta 52. orrialdeak) eta [Hezkuntza Sailburuordearen jarraibideak 2024-25 ikasturterako ikastetxe publikoetako hezkuntzako berrikuntza-arduradunei \(BeA\)](#) buruzkoak aipatzen duten bezala, gaur egungo nahiz etorkizuneko erronkei aurre egiten lagunduko dieten trebetasunak eta konpetentziak garatzeko espazioak izan behar dituzte ikastetxeek. Ezinbestekoa da berrikuntzaren abangoardian kokatzea, ikasleek kalitatezko hezkuntza jasoko dutela ziurtatzeko. Alde horretatik, ikastetxearen errealitatek abiatuta, ikastetxeak ikaskuntzaren [berrikuntza](#) sustatu behar du, betiere bakoitza bere Hezkuntza Proiektuarekin bat etorri, eta bere hezkuntza-komunitatearen errealitatek eta ezaugarrietatik abiatuta. Beraz, asmoa ez da berritzeagatik berritzea, baizik eta ikastetxean ezarritako berrikuntzak ikuspuntu kontestualizatu batetik garatzea eta ikasleen errendimendu akademikoan eta hezkuntza-kalitatean eragin esanguratsu eta positiboa izatea.

Aurreko urtean ikastetxeentzako berrikuntzako 1,5eko jardun kreditua esleitu ziguten.

Aurten, lanaldi bat eta erdi (1,5) esleitu digute, eta esleitutako ordu-kredituaren **plangintza** honelakoa da:

- Iñaki Garcia de Bikuña, **BeA figura** izendatu da eta hari ordu-kreditu horren **lanaldi erdi bat** esleitu zaio. Irakasle horrek parte hartuko du [BeAk Trebatzen](#) formazioan.

Formazio-jarduerak etapa bakoitza kontuan hartuta egiten direnean, BeA horrek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion jardueretan parte hartuko du.

**BeAren plana (Jarraipen-mekanismoak, Ebaluazio-mekanismoak,...)** ondoko estekan jarraitu ahal da:

[https://docs.google.com/spreadsheets/d/1gDNSEFAMOowj9JWu3anjZ2di6X27hJl/edit?usp=drive\\_link&oid=114665807274213328359&rtpof=true&sd=true](https://docs.google.com/spreadsheets/d/1gDNSEFAMOowj9JWu3anjZ2di6X27hJl/edit?usp=drive_link&oid=114665807274213328359&rtpof=true&sd=true)

- Aingeru Olivan **BeA figura** izendatu da eta hari ordu-kreditu horren **lanaldi erdi bat** esleitu zaio.
- BeA figurari esleitu ez zaion **lanaldi erdia** ikastetxea inplementatzen ari den berrikuntza-proiektuak garatzeko erabiliko da. Horrela banatu da:
  - Maika Perez eta Nieves Garijo irakasleek curriculumaren inplementazioaren jarraipena egingo dute. 2 orduko dedikazioa izango du bakoitzak.
  - Oier Etxebarria irakasleak Bizikidetza-proiektuaren garapena eta eguneratzean parte hartuko du, 2 ordurekin.
  - Ainhoa del Campo irakasleak 2,5 orduko dedikazioa izango du Agenda 30eko proiektua aurrera eramateko.

BeAren ardura izango da irakasle horiek ikastetxeko berrikuntza-proiektuak inplementatzeko egiten duten lana koordinatzea. Irakasle horiek ez dute **BeAk Trebatzen** formazioan parte hartuko.

Ikastetxeko berrikuntza-arduradunaren (BeA) **eginkizun nagusia da** ikastetxean ikaskuntza berritzeko prozesuak eta proiektuak sustatzea, dinamizatzea eta koordinatzea, ikastetxearen Hezkuntza Proiektuarekin eta horren ondoriozko dokumentu estrategikoekin bat etorriz. Hori guztia, zuzendaritza-taldearekin lankidetzan estuan eta koordinatuta egingo da, ikastetxeko hezkuntzaren kalitatea hobetu dadin eta ikasleen aniztasunari ikuspuntu inklusibotik erantzun dakion, berrikuntzaren kultura sustatzearen eta hezkuntza-teknologiak eta -tresnak ezartzearen bidetik.

#### HELBURUAK:

- Ikastetxean inplementatzen ari diren berrikuntza-proiektuak monitorizatzea eta horien jarraipena egitea. Irakasle-taldeari aholkua eta laguntza ematea metodologia berritzaileak modu eraginkorrean ezartzeko, irakasleen arteko lankidetzaren sareak jostea eta hezkuntza-baliabideak elkarrekin sortzea sustatzea barne.
- Teknologia, material eta baliabide digitalen erabilera bultzatzen jarraitzea, ikasgelako irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen aldaketa metodologikoa errazteko.
- Ikastetxearen Formakuntza-Planean antzemandako beharrak asetzeko saioak jasotzea eta haien jarraipena egitea.
- Hezkuntza Sailak BeA figuren zat eskaintako formakuntza-saioetan parte hartzea.
- Ereduak eta adibideak. Kalitate handiko eta hezkuntza-helburuekin lerrokatutako adibideak sortzea, ikasle-talde desberdinentzako irisgarritasuna eta moldagarritasuna sustatzeko.
- Eremuak lantzen praktika-komunitateak eta lankidetzaren proiektuak. Baliabideak eta esperientziak partekatzeko, ikastetxearen arteko lankidetzaren eta praktika-komunitateak sortzen laguntzea eta material didaktikoa sortzeko lankidetzaren proiektuak sustatzea.
- Ikastetxearen Hizkuntza-Proiektua egiten eta haren jarraipena egiten

laguntzea, Hezkuntza Proiektuarekiko koherentzia bermatuta eta ikasleen eta haien ingurunearen errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuta.

- Beste ikastetxe batzuetako BeA figurekin koordinatzea, estrategia komunak ezartzeko eta eskualdeko edo ikastetxeen arteko proiektuak ezartzen laguntzeko.

- Pentsaera konputazionala, programazioa eta robotika lantzeko baliabideak ezagutzea eta praktikatzeko hastea. Gelara eramateko jarduerak, ikas egoerak eta abar aztertzea, sortzea eta partekatzea.

- STEAM proiektuak ikastetxeetan nola landu daitezkeen aztertzea eta berrikuntza-ekintza proiektuen bidez garatzea.

- Ikastetxeko zuzendaritzarekin koordinatzea.

#### JARDUERAK, EKINTZAK:

- Ikastetxeari dagozkion etapa eta ikasmailatan, pentsamendu konputazionala, robotika eta programazioa lantzeko antolaketa proposamen koherente bat maiazerako aurkeztu.

- Teknologia eta Informatika arloak ez diren beste batzuekin STEAM proiektu bat sortu.

- 3. hiruilekoan ikas-egoera bat esperimentatu 1. mailako eremu batean.

- Zuzendaritza eta gainontzeko proiektu arduradunekin koordinatu.

- Hizkuntza proiektuaren egoera aztertu eta beharrezko laguntza eskaini.

- BeA figuren formakuntzetan parte hartu.

- Formakuntza saioak antzeman eta antolatu; Ikaslab eta eremuak aurrera eramateko bereziki.

#### 2.3.2.11. ESKOLA ADIMENTSU PROGRAMA. Mentoreen Sarea (ADI programa).

[2022-2023 ikasturtean Mentoreen Sarea \(DigCompEdu Gelan\)](#) eratu zen. Sare hau Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Eraldatzeko Planaren testuinguruan kokatutako ekimena zen eta 2023-2024 ikasturtearen bukaeran amaitu zen. Sarean parte hartzen zuten mentoreek, Sistema Digitalizatzeko Planaren buru zen taldearen (DigiTaldea) gidapean, ikastetxeekin lan egin zuten hurrengo bi helburu nagusiekin:

- [Ikastetxeko Proiektu Digitala](#) diseinatzeko laguntzea
- Ikastetxeko irakasleen gaitasun digitalerako akreditazioa lortzeko laguntzea.

Ikastetxean liberatutako pertsona baten dedikazioa (mentore digitala) izan genuen proiektu digitala egin eta ezartzeko, eta irakasleen gaitasun digitala garatzeko.

DIGCOMPEDU GELAN programako helburuak lortu baditugu ere, hasitako bidetik jarraitu beharra dugu eta sendo eutsi azkeneko bi ikasturtetan erdietsitakoari. Badugu erronka berria, curriculumarekin lotuta. Izan ere, curriculum berriak pentsamendu konputazionala, robotika eta programazioa ikasmaila guztietan hainbat ikasgaietan txertatzeko erronka ekarri digu. Erronka berri honi erantzuteko, **ESKOLA ADIMENTSUA** programa (ADI Programa) abian jarri du Hezkuntza Sailak. Ikastetxeek pentsamendu konputazionala, robotika eta programazioa garatzeko ekipamenduaz aparte, irakasleek prestakuntza eta akonpainamendua beharko dute. ( Kurtso hasierako [Ebazpenaren](#) 20-22. orrialdeak).

Hori dela eta, Hezkuntza Sailak garatu nahi du **ESKOLA ADIMENTSUA**, eta hori ahalbidetzeko, mentore digitalen eskarmentua eta ezagutzaz baliatu nahiko genuke; izan ere, horietako hainbatek arlo honetan espezializatuz joan dira azkeneko ikasturtean.

2024ko uztailaren 8ko [Ebazpenean](#) agertzen den bezala aukeratuak izan gara programa horretan parte hartzeko, eta gure ikastetxeko ADI mentorea Marcos García de Godos da. Bere zereginetako batzuk 2024-2025eko ikasturtean hauexek dira:

- Hautatutako mentoreak bere lan-jardunaldia ADI-sareko mentoretza-zereginetara bideratuko du soilik.
- Mentoreen lanaldiaren heren bat jatorrizko ikastetxearen zereginetan arituko da, beti ere Eskola Adimentsua programak dituen helburuak lortzeko ikastetxean bertan.
- Beste bi herenetan Euskal Hezkuntza Sistemari Adi Programa garatzeko zereginetan jardungo dute. Ordu horietan barne hartzen dira koordinazioak, prestakuntza lanak (NOOC, mintegiak, tailerrak, ...) eta gainontzeko eskakizunak, beti ere Berritzegune Nagusiko aholkulariekin lankidetzan.
- Mentore bakoitza ikastetxe talde baten erreferentziazko bidelagun izango da. Dagozkien ikastetxe horiei, (mintegian parte hartu ala ez) pentsaera konputazionala, programazioa edota robotika euren ikastetxeetan integratzeko aholkularitza eskainiko die.
- Pentsaera konputazionala, programazioa eta robotikaren inguruko praktika onak identifikatzea eta horiek partekatzea eta horien zabalkundea bultzatzea. Horretarako, Digitaldek eskainiko ditu jarraibideak praktika onak ebaluatzeko irizpide partekatuen bitartez, ikastetxe guztietara zabaltze aldera.
- Pentsaera konputazionala, programazioa eta robotikaren lanketa bultzatzeko antolatuko diren ekintzetan parte hartzea.

#### **Lantokia:**

Mentorearen lantokia 2024-25 ikasturtean atxikituta duen ikastetxea izango da, gurea alegia. Hori dela eta, ikastetxeak lan ingurune eta lanabes egokiak bermatuko dizkio irakasle honi mentoretza zereginetarako, alegia, online bileretako eta balizko aurrez aurrekoetarako, telefono bidezko komunikazio eraginkorrerako eta bere lanaren zeregin guztiak betetzeko.

Berritzegune Nagusiak eskainiko dio mentoreari bere betebeharrak egiteko behar duen **formazioa eta laguntza**. Mentororak beste formazioen (ikastaro, jardunaldi, ...) batean parte hartu nahiko balu, ikastetxeko zuzendariari eta digitalderi jakinaraziko dio alde zuzenetik, haien oniritzia jasotzeko.

#### **HELBURUAK:**

ADI programa aurrera emateko aholkuak eta laguntza eskaintzea, ikastetxearen estrategia zehatza sortzeko, PK, robotika eta programazioa nola inplementatzen diren edo inplementatuko diren etapa eta irakasgai ezberdinetan.

#### **IKASTURTEKO JARDUERAK, EKINTZAK:**

Baliabideak aztertzea eta eskaintzea, proposamenak erakustea, zalantzak argitzea, informazio lagungarria zabaltzea, ikas-egoerak eta horrelako proposamenak jasotzea eta partekatzea, mintegiak prestatzea eta ematea.

## **2.4.- ZENTROAREN EBALUAZIO PLANA**

Ebaluazioa prozesuen hobekuntzaren bidez bai zentroko kudeaketan bai heziketako praktikan eragitea baimentzen digun baliabidea da. Ikastetxearen Urteko Plan hau, beraz, ikasturtean zehar sortuko diren zuzenketak aurrera eramateko irekita dago. Horretarako OOG, klaustro eta, bereziki, zuzendaritza talde, Departamentu eta irakasle taldeen jarraipena beharrezkoa izango da. Zuzendaritza taldeak hobetzeko sortutako iradokizunak, proposamenak eta ekimenak bilduko eta bideratuko ditu dagokion taldeak onartzeko eta martxan jartzeko.

Aurreko urteetan bultzatutako etengabeko hobekuntza ideiarekin jarraituz, Institutuaren ebaluazio orokor bat egingo dugu, ikasturtearen hirugarren hiruhilekoan irakasleei zuzendutako lau galdeketa espezifikoren bitartez: zentroaren helburu orokorren ebaluazioa, zentroaren funtzionamendu orokorreko alderdien ebaluazioa, zentroko zerbitzuen eta programen ebaluazioa eta, azkenik, organo desberdinei edo institutuaren taldeei zuzendutako ebaluazio orokorra.

Ordezkaritza Organo Gorenaren gainontzeko estamentuen iritzia bilduko dugu arestian aipatutako ebaluazio orokorrerako galdetegiaren bitartez.

Ikasturtean zehar eginiko hainbat iritzi, ohar eta balorazio kontutan izango dira honako egoera hauez baliatuz: ikasleak ebaluatzeko saioak, gobernu- eta pedagogia-organok berrikusteko bilerak, familiarekin egindako bilerak, etab.

Ekainean, departamentuko buruak, proiektuen koordinatzaileek eta zuzendaritza taldeak dagozkien azken txostenak aurkeztuko dituzte Ikastetxearen Urteko Memoria osatuz. Hau OOGk onartu behar izango du eta datorren ikasturteko Ikastetxearen Urteko Plana egiteko oinarria izango da.

## **3.- ORIENTAZIO ETA TUTORETZA PLANA**

Hezkuntza Sailaren orientabideei jarraituz, ikasturte honetako Orientazio eta Tutoretza Plana tutoreek egin dute, orientatzailearen koordinazioarekin. [XII. eranskina](#) (Orientazio eta Tutoretza Plana) da prestatutako lana.

## **4.- URTEKO BIZIKIDETZA PLANA**

Honek bizikidetza hobetzeko ekintzak eta gatazken trataera batzen ditu. 2016-17 ikasturtean Elkarbizitza behatokiaren testuinguruan Plana eguneratu egin zen, eta ikasturte honetan arduradunak jasoko duen formakuntzarekin eguneratuko da: [XIII. eranskina](#) (Urteko Bizikidetza Plana).

## **5.- JARDUERA OSAGARRIEN ETA ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN PROGRAMA**

### **5.1.- JARDUERA OSAGARRIAK**

#### **5.1.1.- Ekintza Didaktikoak**



Ikastetxeak eskola-egutegiaren barruan antolatutako hezkuntza-jarduerak dira. Orobat, egiten diren une, gune edota erabiltzen diren baliabideengatik, ohiko eskola-orduetatik desberdintzen diren jarduerak dira. Ikasleek eta irakasleek derrigorrean hartu behar dute parte jarduera hauetan, gainerako ikastorduetan bezala. Jarduera hauetan eman daitezkeen ikasleen hutsegiteak gurasoek justifikatu beharko dituzte.

Jarduera osagarriak antolatzeko garaian, helburuak, inplikaturako ikasle eta irakasleak, eta egiteko eguna, ordua eta lekua zehaztuko dira. Ikastetxetik kanpo egiten diren jardueretan gurasoen edo tutoreen baimena behar da.

Departamentu guztiek ikasturtean zehar antolatu nahi dituzten jarduerak aurkeztuko dira zuzendaritzaren aurrean. Zuzendaritzak, adostukoa aplikatuz, aurreikusitako ekintzekin taula bat prestatu egin du, [XIV. eranskina](#) hain zuzen ere (Ekintza osagarrien eta eskolaz kanpoko ekintzen programa), Institutuko elkargoaren organoek onar dezaten.

### 5.1.2.- Jai-Ekintzak

Ikasturte honetan, besteak beste, Euskararen Nazioarteko Eguna (ENE) ospatuko dugu abenduaren 3an, Gabonetako jaiak abenduaren 20an eta Aste Kulturala apirilean.

### 5.1.3.- Ikasketa eta Elkarbizitzarako Bidaiak

Jasotako protokoloek adierazi bezala gaua igarotzea eskatzen duten jarduera guztiak berriro ere abian jarriko ditugu.

- Hortaz, DBHko 2. mailako Bizikidetzabidaia egin dugu BERTIZera. Irteera urriaren 2tik 4ra egin da, ikasleen arteko harremanak sendotu eta hobetzeko helburuarekin, eta 4 irakasle joan dira.
- Aurten 1. DBHko ikasleak Euskal Girozte Barnetegi batera joango dira abenduaren 9tik 13ra.
- Baita ere, urtero bezala, DBHko 4. mailakoak eta Batxilergoko 2. mailakoak ikasketa bidaiak burutuko dituzte.
- Aurten ere, ingelesean murgiltze-egonaldi baten eskaera egin dugu 2. DBHko ikasle guztientzako.

### 5.1.4.- Larrialdi-simulakroa

[Institutuko Ebakuazio Planean](#) agertzen den moduan, Arrisku Prebentziorako Sailak eta [kurtso hasierako Ebazpenak](#) 116. orrian agintzen duenari jarraituz, aurten azaroan ebakuazio-simulazio bat egingo da Institutuan. Urtero egitekoa eta nahitaezko jarduera da.

Hori antolatze arren irakasleentzako saio informatibo bat egingo da eta tutoretza orduetan ikasleei ere informazioa emango zaie. Abenduan, ikastetxeko lan arriskuen auditoretza egingo da.

Ikastetxean desgaitasuna duen ikasleren bat eskolatuta egonez gero, hura behar bezala ebakutzeko beharrezko neurri zehatzak adierazi behar dira. Simulakroa egin ondoren, jardueraren ebaluazioa Segurtasuna - Larrialdiak atalean gaitutako webguneko formularioaren bidez bidaliko da.

### 5.1.5.- “Dolores Ibarruri Ezagutzen”

2006-07 ikasturtean abiatutako ekintza honek, [Abanto-Zierbenako Udala](#)rekin eta [Meatzaritza Museo](#)arekin batera bultzatutakoa, Dolores Ibarruriren irudia pertsona guztien eta bereziki emakumeen eskubideen defentsan nabarmendu zuen emakume bezala mantendu nahi du bizirik gure ikasleengan. Ikasturte honetan DBHko 1. mailakoek Museoan barrena ibiliko dira “*pista-jokoan*” Doloresen ibilbide politikoa ezagutzeko, urtarrila eta otsaila bitartean. DBHko 4. mailakoak Doloresen bizitzara egokitutako “*karta-jokoan*” arituko dira, otsailan. Batxilergoko 1. maiako ikasleekin Dolores Ibarruriren figura historikoa landuko dute “*zineforum*” baten bidez, dokumental bat ikusi eta gero.

## 6.- IRAKASLEENTZAKO PRESTAKUNTZA PLANA

Ikastetxearen Formakuntza-Plana etengabeko hobekuntza bultzatzeko helburuarekin diseinatu behar da, lankidetzeta-prozesu baten bidez, hezkuntza-jarduera aztertzeke eta ulertzeke. Beraz, indarguneak eta ahulguneak identifikatu behar dira, hobekuntzak proposatu eta formakuntza-helburuak Hezkuntza Proiektuaren misioarekin eta balioekin lotzeko.

Formakuntza-plana zehazteko, ikastetxeko Hezkuntza Proiektuarekiko koherentzia bermatu behar da; formakuntza-helburuak ikasleen eta irakasleen behar espezifikoak lotu behar zaizkie.

Berrikuntza figuraren rola (BeA figura) funtsezkoa da ikastetxeko formakuntza-plana diseinatzeko, koordinatzeko eta haren jarraipena egiteko, zuzendaritza-taldearekin lankidetzan. Plan horrek barne hartuko ditu ikastetxea ezartzen ari den edo planifikatzen hasia den hezkuntza berritzatzeko eta eraldatzeko proiektuekin lotutako gaikuntza-programak, elkarren arteko erlazioak ezar daitezkeen eta izaera integrala izan dezaten.

Klaustroak adostutako akordioak batuz eta proiektuetatik datorren prestakuntza eskaintza kontutan hartuz, zuzendaritzak Prestakuntza-Plan bat prestatu du, [XV. eranskinean](#) (Irakasleentzako Prestakuntza-Plana) azalduta dagoen moduan.

Hortaz, 2024-2025 ikasturtean zehar gure institutuan formazioa aurrera eramango dugu modu ezberdinetan:

- 2 ordu, [IKT formakuntza](#): Irakaslearen koaderno digitalaren garapena, [Ebazpena](#), [IPDa](#), geletako baliabideak, [Hezigunea](#) eta [Langunea](#) landu dira. Irailaren 5ean burutu zen.
- [Kurtso hasierako Ebazpenak](#) (43-44. orriak) aipatzen duen bezala, [Berritzegune Nagusiak 24-25 ikasturterako aurreikusten duen formazio-eskaintza](#) prestatu du. Formazio-eskaintza honek ikastetxea du helburu, ez irakasle soila, zuzendaritza taldeari lagundu nahi diolako ikastetxearen ikasturteko formazio plana diseinatzen, betiere ikastetxearen lehentasunezko lerro estrategikoak eta berrikuntza proiektuak modu integralean eta kolektiboan garatzeko:
  - **PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK ETA IKAS-EGOERAK -NOOC-**:  
Programazio Didaktikoak eta Ikas-Egoerak" noocak helburu du irakasleek programazio didaktikoak eta ikas-egoerak diseinatzeko beharrezko tresnak eta estrategiak eskuratzea. Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:
    - Ikasturte hasieran diseinatu behar diren programazio didaktikoen egitura ezagutzea.

- Programazio didaktikoa egiteko proposatuko atalak eta hauek betetzeko gakoak ezagutzea.
- Ikastetxerako programazio didaktikoak diseinatzea bakoitzaren testuinguruari egokituta.
- Ikasturtean zehar diseinatu behar diren proposatutako ikas-egoeren egitura eta atalak ezagutzea.
- Ikas-egoeren diseinurako gakoak ezagutzea.

Azken finean gure programazio didaktikoak eta ikas-egoerak eguneratzeko konpromisoa hartuko dugu.

Formakuntza online formatuan eskainiko da, Moodle plataformaren bidez. Guztira 5 orduko iraupena izango du.

- **IRAKURKETA ESTRATEGIA IKASTETXEETARA: EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMARAKO IRAKURKETA ESTRATEGIA BERRIA EZAGUTARAZTEKO PRESTAKUNTZA:**

"Irakurketa Estrategia ikastetxeetara" ubideak [Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia](#) berria ezagutaraztea du helburu. Izan ere, irakurketa Estrategiaren betekizun nagusia ikastetxe batean irakurketaren tratamendua antolatzea eta artikulatzea da, irakurle kompetenteak eta onak prestatzeko.

Horretarako, ikastetxe bakoitzak, bere errealitatetik abiatuta, irakurketa indartzeko helburu zehatzak diseinatuko ditu 2024-2027 eperako aurkezten den Estrategiaren testuinguruan.

Hedatze programan gaudenez *Irakurketa Estrategiaren* inguruko formakuntza bat egin behar da. Ikastaroa 5 ordukoa da eta gehiena online formatuan egingo da. Honako egitura du ikastaroak:

1. modulua: irakurle kompetenteak lortze bidean (3 bideotxo, 2 infografia eta jolas batzuk).
2. modulua: irakurketa estrategiaren ekintza ardatzak (3 bideotxo eta infografia bat).
3. modulua: irakurketa motak, moduak eta ebaluazio uneak (3 infografia).
4. modulua: nola ekarri gurera (infografia bat eta MINTEGIKA egingo den ataza bat).

Modulu horietatik lehenengo hirurak bakarka egiteko dira, bakoitzak bere erritmoan. Halere, azken ataza burutzeko mintegi bakoitzak ariketatxo bat bete behar du. Lantxo hau egiteko mintegi bururei emango zaie informazioa DBB bilera batean eta mintegi bakoitzak antolatuko du noiz eta nola egin, beti Gabonak baino lehen.

- **DBHKO 1. ETA 2. MAILETAN EREMUEK LANA PRAKTIKA KOMUNITATE PROFESIONALA.**

Eremuen lana nola diseinatu eta ezarri ikasiko da, esperientziak partekatuz eta praktika onak trukatzuz. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, eta irakasleek ikasitakoa ikastetxean inplementatzeko konpromisoa hartuko dute. EL-PKPn garatuko diren jarduerak erdipresentzialak izango dira, aurrez aurre eta online formatuan.

Helburuak:

- Ikastetxeetan eremuak ezartzeko zein garatzeko prozesua erraztea.
- Ikastetxeen artean esperientzia, material eta baliabide didaktikoen eta jardunbide

egokien trukea sustatzea.

- Laguntza eta aholkularitza ematea praktika-komunitate baten bidez, hezkuntza esku-hartzea diziplinartekotasunaren ikuspegitik garatzeko.
- Ikaskuntza partekatua eta irakasleen etengabeko prestakuntza bultzatzea.

Ordezkarri bat izendatuko da (BeA), praktika-komunitatearekin koordinatzeko eta ikastetxeko eremuen arabera lanaren jarraipena egiteko.

Gure ikastetxeak **“Oinarrizko ibilbidea”** egingo du: Lana eremuen arabera ezartzeko hasierako etapan dauden ikastetxeentzat diseinatuta dago ibilbide hau; hau da, oraindik lana eremuen arabera egitea planifikatu gade dutenentzat. Ibilbide honen helburu nagusia da eremuka lanaren oinarri teorikoak eta metodologikoak eskaintzea, hasierako plangintzan laguntzea, curriculum integratzeko tresnak ematea eta ikasgaien arteko lankidetzak sustatzea.

Arduradunek egingo duten formakuntza erdipresentziala izango da. Lekua eta ordu kopurua ibilbideen arabera zehaztuko dira, eta gutxienez 10 ordukoa izango da. Saioak ostegun goizetan izango dira, hiruhilabete behin gutxienez. Klaustrokideek gehienezko 8 orduko formakuntza izango lukete. Aurreikusten diren formakuntzen formatua aurrez-aurrekoa eta online izango dira.

- **EBALUAZIOA: IKASKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA HOBETZEKO PROZESUAN ERAGITEKO BIDEA- PKP.**

Formazio hau diseinatzerakoan ikastetxean ebaluazioarekin lotuta ditugun beharrei erantzuna ematea nahi izan da. Formakuntza berri honetarako saio desberdinak diseinatu dira, ebaluazio esparruan pausuz pausu, behar den laguntza hori emateko. Ikastetxean ebaluazio prozesua dinamizatzeko helburua dago azken finean. Ikastetxetik 2-3 pertsonak formakuntza hartuko lukete, PKPak ikastetxean inpaktua izan dezan, eta pertsona horiek, talde eragile moduan lan egingo dute. Klaustrokideek gehienezko 8 orduko formakuntza izango lukete. Aurreikusten diren formakuntzen formatua aurrez-aurrekoa eta online izango dira.

Helburuak:

- 1.- Ebaluazioa prozesu jarraitua dela bereganatzea.
- 2.- Konpetentzien ebaluazioa zer den ulertzea.
- 3.- Ebaluazioaren funtzio hezitzaile eta hezigarria zein den ezagutzea.
- 4.- Ebaluazioaren pertsonalizazioa zer den ikastea.
- 5.- Ikaskuntzaren ebidentzien garrantziaz jabetzea.
- 6.- Ebaluazio jarraia eta amaierakoa zertan datzan ikastea.
- 7.- Ebaluazio prozesuaren zati gisa emandako atzeraelikaduraren garrantziaz jabetzea.

- **IRAKASLEEN KONPETENTZIA DIGITALEAN ETA CURRÍCULUMAREN EZAGUTZAN SAKONTZEKO FORMAZIOA:**

Bere **konpetentzia digitalaren akreditazioan** aurrera egin nahi duten irakasleek aukera izango dute **A2, B1 eta B2** mailetako ikastaroak txanda irekien bitartez lortzeko. (Kurtso hasierako ebazpenaren 22. orria).

- 2 ordu, Hezkuntza Sailak bidalitako teknikari batek Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko ikastaro bat egiteko.
- Funtzio tutoriala eta irakasleen arteko koordinazioa.

- Ikastetxeko profil profesional espezifikoei zuzendutako formakuntza:
  - Zuzendarien mintegiak.
  - Ikasketaburuen mintegiak.
  - BeA figuren mintegiak.
  - Eskolako Agenda 2030 mintegiak.
  - Eskola adimentsua: praktika saioak.
  - Ulibarri programa.
- Ikastetxeko Proiektuekin lotutako jarduera formatiboak:
  - Orientatzailea.
  - Bizikidetzak.
  - Hezkidetzak.
  - PT irakaslea.
  - Adimen Gaitasun handien inguruko ikastaroak.
  - Elkarbizitzaren behatokia ( Bizikasi ekimenaren ingurukoa)
  - Heziketa zikloetako formazio propioa.

Zuzendaritza taldeak irakasleen aldetik formazio orduak betetzearen kontrol bat eramango du 2024-2025 ikasturtea antolatzeko moduari buruzko Hezkuntza Sailburu-ordearen Ebazpenean jasotako behar laboralak betetzen direla ziurtatzeko.

## **7.- URTEKO KUDEAKETA PROGRAMA**

Finantza-baliabideen banaketa, ikastetxean helburuak eta lehentasunak ezartzeko modu garrantzitsua da. Atal honetan kontuan hartu behar da kudeaketa ekonomikoaren (urte naturala) eta ikastetxearen urteko planaren (ikasturtea) denbora-esparruak desberdinak direla.

Horregatik, atal horretan honako alderdi hauek hartuko ditugu aintzat:

✓ Onartutako aurrekontua zenbateraino bete den: horretarako, nahikoa da orri batean aurrekontuko zenbait diru-partida jasotzea, eta une horretara arte zenbat diru erabili den (gastuak). Dokumentu honek ekonomia-kudeaketarako aplikazio informatikoa berak ematen du.

✓ Hurrengo aurrekontuetarako gastu-irizpide eta -aurreikuspenak; batez ere, funtzionamenduari lotuta ez dauden gastuei dagokienez: hornikuntzeekin, formazioarekin, obra txikiekin eta abarrekin zerikusia dutena.

Institutuko kudeaketa ekonomikoaren urtez urteko izaerak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren pean dagoen neurrian, Ikastetxearen Urteko Planaren atal hau zirriborroan egotera behartzen gaitu. Urteko azken OOGan urteko kontuan onartzearekin batera osatuko da.

Pandemiaren ondoren egoera normala pixkanaka berreskuratzeak institutuaren ohiko jarduera ekonomikoa berreskuratzea ere ekarri du, hala nola, zerbitzuak emateagatik diru-sarrerak handitzea eta funtzionamendu-gastu arruntak normalizatzea. Baina, aldi berean, krisi ekonomiko orokortuak funtzionamendu-gastu arruntak handitzea eragin du. Ziurgabetasun-

egoera baten aurrean gaude, eta horrek zuhur jokatzera behartzen gaitu, planteatzen diren beharrak asetzen eta zentroa hobetzeko gastuei eusten saiatuz.

### 7.1.- BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA

Gastua arrazionalizatzeko eta arrunta ez den gastua gutxitzeko, helburu ekonomikoak ezarri, azken ikasturteetan indarrean jarritako neurriek baimendu dute saneatutako baliabide-antolaketa mantentzea. Azpimarratu behar da ikastetxeko jardura didaktiko eta funtzionamendu orokorreko guztiak mantendu direla. Gainera, beste ekimen batzuk egin ditugu irakaskuntza garatzeko eta ikastetxearen egoera eta ekipamendua hobetzeko behar diren bitartekoak hobetzeko:

- Ikaslab gela martxan jartzea.
- Bilera gela berria margoztu dugu.
- *Ikaslab* gela hornitu egin dugu.
- *Ligurutegia* margoztu eta hornitu dugu.
- Frontoia margoztu dugu.
- WEB orrialdearen mantenua.
- Bulegoetako arotza-mantentze lanak egin dira.
- Mantentze-lanak: margotzea, teilatuak, elektrizitatea, zurgintza, iturgintza, estolderia, pertsianak, lorezaintza, alarma-sistema, etab.
- Bisita gelan altzari berriak jarri dira.
- Irakasle-gela kortina (store) berriak jarri ditugu.
- Polikiroldegian argiak eta entxufe berriak jarri ditugu.
- Irakasle gelan fotokopiagailu berria jarri da.
- Musika gela eta Biologiako laborategiko hornikuntza.

Egindakoak bide onetik goazela adierazten digu eta, hori dela eta, ikasturte honetarako aurrekoetan ezarritakoak mantentzea proposatzen dugu:

- Irakaskuntzarekin, formazioarekin, eta abarrekin erlazionatutako jardueren gastua bere osotasunean mantentzea.
- Didaktika arloko funtzionamendu-gastua mantentzea, zarrastelkeriak saihestuz.
- Konponketetarako gastua murrizketa mantentzea, apurketak saihestuz.
- Zentroaren mantenu zuzenerako gastu beharrezkoak mantentzea ahal den heinean.

Irizpide hauek hobekuntzarako hainbat jardura burutzea ahalbidetuko dute:

- Eraikin zaharraren bizitza-lerroak berrikustea eta berritzea.
- Komunitateko zisternak hobetzen jarraitzea.
- Institutuko margotze planarekin jarraitzea.
- Errezelak berritzea eraikin zaharreko geletan eta bulegoetan.
- Fisikako laborategiaren izaera aldatu eta hornikuntzan jarraitzea.
- Jolastokiko paperontziak berritzea.
- Material didaktikoa berritzea: arbelak, estazio meteorologikoa, etab.
- Polikiroldegia teiltua berritzea.
- Eraikuntzaren fatxadan arazo arin batzuk konpontzea.
- Burdineriaren konponketarekin eta margotzearekin jarraitzea.
- Idazkaritzako eta zuzendaritzako altzariak berritzea.

- Burdin ate nagusia aldatzea.
- Garbitzaileentzako lehorgailua erostea.
- Bisita gela berri bat egitea.
- Berogailuak margozea.
- Fotokopiagailu haundi berria erostea.

#### **Jarraipena eta datak:**

Gutxienez urtean bitan (Ekaina eta abendua) aurkeztuko zaizkio kontuak OOGri. Urtean behar adina aldiz gainbegiratuko dira kontuak zuzendaritzan, egoera azertu eta erabakiak hartu ahal izateko.

2024ko abenduan OOGren bileran uneko egoera ekonomikoaren berri emango zaio, 2024ko aurrekontua eta aurrekontua gauzatzearen egoera orria aurkeztuaz oniritzia eman dezan.

2025ko maiatzean 2025 ekitaldiko aurrekontua gauzatu eta aurkeztuko da OOGan.

2025ko ekaina bukaeran 2025ko aurrekontua, aurrekontua gauzatzearen egoera-orria eta diruzaintzaren egoera aurkeztuko zaizkio OOGri.

Abanto-Zierbena, 2024ko azaroaren 6a.